



EUSKADIKO KOMUNITATE PALESTINARRAREN MEMORIAREN KARTOGRAFIA



erkidego batzordea
unrwa
euskadi

Palestinako
errefuxiatuekin

una

gestión y
comunicación

Ikerketa-metodologia, elkarriketak eta testuak:

UNA Gestión y Comunicación

Testuen egilea: UNA Gestión y Comunicación

Koordinazioa eta edizioa: UNA Gestión y Comunicación eta UNRWA Euskadi

Diseinua eta maketazioa: Binari Comunicación

Lege-gordailua: M-29924-2022

ISBN: 978-84-09-45738-0

Bilbo, 2022ko urria

www.unrwaeuskadi.org



erkidego batzordea
unrwa
euskadi

Palestinako
errefuxiatuekin

Argitalpen honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren finantza-laguntza jaso du.

Argitalpen honetan egindako azterketek eta adierazitako iritziek ez dute zertan bat egin UNRWA Euskadiren eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarrekin.



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Aipamena – Ez-komertziala – Eratorritako lanik gabe (CC BY-NC-ND 4.0)

Dokumentu hau Creative Commons lizentzia batekin argitaratu da. Materiala edozein bitartekotan edo formatutan askatasunez partekatu, kopiatu eta birbana daiteke, betiere egilearen izena aipatzen bada. Ezin da materiala helburu komertzialekin erabili. Materiala berriro nahasi, eraldatu edo hartan oinarrituta beste bat sortzen bada, ezin izango da zabaltzeko. Ezin da legeko terminorik edo neurri teknologikorik ezarri, lizentziak baimentzen duena egitea legez mugatzen duenik. Lizentzia osoa: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_ES

**EUSKADIKO KOMUNITATE
PALESTINARRAREN
MEMORIAREN KARTOGRAFIA**

AURKIBIDEA

1. EUSKADIKO KOMUNITATE PALESTINARRAREN MEMORIAREN KARTOGRAFIAREN ETA UNRWA EUSKADIREN AURKEZPENA	7
2. KARTOGRAFIA EGITEKO METODOLOGIA	10
3. EUSKADIKO PALESTINARRAREN ISTORIOAK, ZORIGAIZTOZ ETA DUINTASUNEZ BETEAK	17
3.1. Mohammed Abu_Jbara	17
3.2. Mohammed Farajallah	24
3.3. Mohammed Laymon	29
3.4. Nadia Nemeh Shamaly	35
3.5. Kamal Ubeid	40



4. ONDORIOAK	46
4.1. Abiapuntuko egoerak	46
4.2. Euskadin kokatzeko prozesua	46
4.3. Genero-ikuspegitik begiratuta	48
4.4. Entitate sozialen egitekoa: zurrumurruen aurkako estrategiak	49
5. BIBLIOGRAFIA	50
6. ERANSKINAK	52
6.1. 1. Eranskina	52
6.2. 2. Eranskina	54



erkidego batzordea
unrwa
euskadi

Lan eremuak

Tokiko biztanleria



- Jordania
- Libano
- Siria
- Irak
- Gazako zerrenda

Guztira: 6.293.390

MEDITERRANEAR ITSASOA

12 kanpaleku
538.692
pertsona erregistratuak

9 kanpaleku
647.143
pertsona erregistratuak

SIRIA

LIBANO

GOLÁN

ISRAEL

ZISJORDANIA

JORDANIA

GAZAKO
ZERREDA

19 kanpaleku
1.065.772
pertsona erregistratuak

8 kanpaleku
1.622.121
pertsona erregistratuak

1960an ezarritako kanpamentua	1967an ezarritako kanpamentua	Estimazioa
●	▲	100 - 25.000
●	▲	25.000 - 50.000
●	▲	50.000 - 119.000
●	▲	

● Checkpoint — Buzkatutako harrisia
— Erakartzeko dagien harrisia
— Ameritarren dagien harrisia

*Erregistratuak erregistratuak eta UNRWAren erregistratuak erregistratuak bera pertsona bera. This figure reflects the number of registered refugees in the United Nations relief and works agency (UNRWA) for Palestine refugees in the east bank.

1. EUSKADIKO KOMUNITATE PALESTINARRAREN MEMORIAREN KARTOGRAFIAREN AURKEZPENA¹

Nabigaziorako zein gizakia kokatzeko balio duten mapak aztertu eta egiten dituen zientziari esaten zaio kartografia. Gaur egun, gizakien mugikortasuna oso handia da, eta, testuinguru horretan, gida gisa funtzionatzen dute mapek, pertsonak beren migrazio-prozesuetan nondik nora joaten diren jakiteko, zer barruti geografiko eta politiko zeharkatu behar dituzten ikusteko, bidaiaren etapa bakoitzean zer-nolako erronkak aurkitzen dituzten irudikatzeke, eta leku bakoitzean sortzen diren bizipenak eta memoriak kokatzeko.

Euskadin bizi diren bost palestinarren bizitza-istorioak biltzen ditu argitalpen honek, eta haien migrazio-prozesua azaltzen du, sorlekutik Euskadira iritsi ziren arte. **UNRWA Euskadiren**, Ekialde Hurbileko Palestinako errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziaren Euskadiko batzordearen, ekimenez egin da. Hainbat urtean Palestinako errefuxiatuen alde lan egin ondoren gauzatu du UNRWAK lan hau, palestinarrekin lankidetzan aritzearen garrantziaz jabetuta; izan ere, Palestinako lurralde okupatuko egoera humanitariora ezagutzero emateko agente aktiboak dira.

UNRWAK laguntza, babesa eta defentsa eskaintzen dizkie 5,7 milioi palestinar errefuxiaturi, haien egoera zailari bidezko eta behin betiko irtenbidea noiz iritsi zain. Duela ia zazpi hamarkadaz geroztik, Agentzia arduratu da Palestinako errefuxiatuei hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak eta laguntza humanitariora bermatzeaz, Jordanian, Sirian, Libanon eta Palestinako lurralde okupatuan.

1 Atal hau UNRWA Euskadik egin du.

UNRWA Euskadi 2006. urtean sortu zen, bi helburu nagusirekin: euskal gizarteari Palestinako errefuxiatuen egoera eta UNRWAk egiten duen lan humanitarioa eta babes-lana ezagutaraztea.

Horretarako, UNRWA Euskadik garrantzi handia ematen dio ezagutza kritikoari, bai eta diskriminazioa prebenitu eta euskal biztanleek palestinarrakiko dituzten jarrerak aldarazten dituzten jarrerei eta tresnei ere. Ildo horretan, 2019an, *Ekialde Ertaineko eta Palestinako errefuxiatuei buruzko euskal gizartearen pertzepzioak*² ikerketa diagnostikoa argitaratu zuen. Azterlan horretan, datu eguneratuak bildu ziren, euskal gizartean Ekialde Ertaineko eta, bereziki, Palestinako errefuxiatuei buruz dauden estereotipoei eta aurreiritziei buruzko informazioa ematen zutenak.

Lan horri jarraipena emanez, argitalpen hau aurkezten da orain. Bertan, Palestinako errefuxiatuen eta ez-errefuxiatuen sorlekuko baldintzak, migrazio-ibilbidea eta Euskadin finkatzeko prozesua aztertzen dira. Pertsona horien errealitatearen, esperientzien eta bizipenen berri ematea da helburua, beraiek zuzen-zuzenean azalduta, esku hartzeko estrategiak eta gizarte-eraldaketa eraginkor eta koherenterako ekintzak sortu ahal izateko, giza eskubideen eta genero-eskubideen ikuspegitik.

Horretarako, Palestinako lurralde okupatutik (Zisjordaniatik eta Gazako zerrendatik) eta Libanotik etorritako lau gizonen laguntza izan du UNRWA Euskadik, baita ama eta aita palestinarrak dituen eta Bizkaian jaio den emakume batena ere. Haien parte-hartzea ezinbestekoa izan da lan hau egiteko; eskerrik asko, bihotz-bihotzez.

Halaber, **ZAS! Euskadiko Zurrumurruen Aurkako Sareko**³ bost erakunde sozialetan ekarpenak jaso dira. ZAS! eragile sozialek eta erakundeek osatutako sarea da, gizartea sentsibilizatzeko estrategia bat garatzen duena, xenofobiari eta diskriminazioari aurre egiteko, bizikidetzak hobetzeko eta kultura-aniztasunaren indarra baliatzeko.

Argitalpen honen partaidetza-prozesuaz **Una gestión y comunicación**⁴ aholkularitza-enpresa arduratu da. Genero-berdintasunean espezializatua da, eta esperientzia handia du garapenerako lankidetzaren eta gizarte-eraldaketarako hezikuntzaren esparruetan.

2022. urtea inflexio-puntu berri bat izan zen Palestinako errefuxiatuentzat, Errusiak Ukraina inbaditzearen ondorioek izugarritzko eragina izan baitute beraien gain. Izan ere, eskualde horretako herrialde askok Errusiatik eta Ukrainatik inportatzen dute euren kontsumorako gariaren % 50. Horrenbestez, elikagaien prezioak

2 Hemen eskura daiteke: diagnostico_eusk.pdf (unrwaeuskadi.org)

3 <https://zas.eus/eu/>

4 <https://www.unagestion.com/eu/>

izugarri igo dira Ekialde Hurbilean, eta, horren ondorioz, Palestinako errefuxiatuak, oraindik ere beste gatazka batzuen ondorio ekonomikoak eta sozialak jasaten ari direnak, egoera bereziki zaurgarrian daude. Bestalde, inbasioak Europako migrazio-politikak aldarazi ditu.

Hala ere, nahiz eta Palestinako errefuxiatuen egoera orokorra larria izan, nazioarteko laguntzarako lehentasunen zerrendan azken postuetan daude. Hori dela eta, gaur egun inoiz baino beharrezkoagoa da herri horren egoeraren berri ematea, gure inguru hurbilean bizi diren palestinarren ahotsen bidez.



Zisjordania. © Argazkilari ezezaguna / UNRWaren artxiboak

2. KARTOGRAFIA EGITEKO METODOLOGIA

Euskadiko komunitate palestinarren memoriaren kartografiarako egindako ikerketan, metodologia konbinatua erabili da, eta informazioa kualitatiboa zein kuantitatiboa biltzeko teknikak erabili dira, besteak beste. Horretarako, bigarren mailako iturrietara jo da —txosten espezializatuak eta beste dokumentu batzuk—, eta lehen mailako iturrietara —aztertu dugun analisi-eremuan arlo desberdinetatik inplikaturako pertsonak—.

Diseinu metodologikoaren helburu nagusia honako hau izan da: palestinar jatorriko emakumeek eta gizonek Palestinatik irteteko prozesuari, Palestinarekin duten harremanari eta Euskadira iristeari eta/edo hemengo bizikidetzari buruz dituzten kontakizunak, iritziak eta esperientziak lortu eta nabarmentzea.

Beraz, beren bizitza-istorioak —esperientziak, sentipenak, zailtasunak eta ikaskuntzak— kontatu nahi izan dituzten pertsonak izan dira protagonistak. Orobat, beste ekarpen batzuk ere jaso dira, hala nola Palestinako lurralde okupatuan bertako biztanleen eskubideen alde lan egiten duten erakundeek eta Euskadin migratzaileen eta/edo asilo- eta babes-eskatzaileen eskubideen defentsan aritzen direnenak.

Beraz, hurbilketa kualitatiborako landa-lana egiteko, bi teknika hauek erabili dira:

1. TEKNIKA. BIZITZA-ISTORIOAK

Bizitza-istorioen teknika erabiltzea erabaki dugu, teknika horri esker ezagutza kokatua lor baitaiteke; hots, eskuarki eragile-izaerarik gabeko subjektibotasunak eta esperientziak balioesten dira. Izan ere, beste teknika batzuekin nekez lor daitezkeen datuak ematen ditu, fenomeno sozialen izaera aldatu egin baitaiteke ikerketaren espazio- eta denbora-aldagaien arabera⁵. Badakigu teknika horrekin ezin dela unibertsalizazioa gauzatu, baina haren ekarpenak baliozkoak dira.

Zalantzarik gabe, bizitza-istorioen ekarpena ezinbestekoa da; hainbat eta hainbat datu daude migrazio-prozesuei eta behartutako lekualdaketei buruz, baina

5 Szczepanski, 1978

datuek ez dituzte adierazten migrazio eta lekualdaketa horiek pertsonen bizitzan dituzten ondorioak.

Bizitza-istorioen bidez datuak biltzeko prozesuan, giro adeitsua eskaintzea izan da gure ardura, parte-hartzaileak gustura senti zitezen, ohartu zitezen ez genituela epaitzen, eta beren istorioa kontatzeko nahikoa konfiantza izan zezaten. Nahi zutenaraino irits zitezkeen beren kontakizunean; izan ere, batzuetan, esperientzia mingarriak izan dituzte, indarkeria jasan dute, eta horiek ez dira erraz partekatzen.

Beste helburu bat ere bagenuen: kontakizuna lortzea eta transkribatzea, eta elkarriketetan lortutako informazioa alde zurretik zehaztutako kategorietan antolatzea.

Gure ikerketa-lana, esan bezala, alderdi kualitatiboetan oinarritu da, eta, horrek emaitza mugatuak izan arren, Euskadin bizi diren palestinar guztientzat estrapolatu ahal izatea izan da xedea.

Horretarako, UNRWA Euskadiren eta Una Gestión y Comunicación enpresaren artean, hautaketa-irizpideak adostu genituen. Honako hauek izan dira:

- Bi sexuak ordezkaturata egotea.
- Babes-estatusa duten pertsonen lehentasuna ematea.
- Zenbait udalerritan eta lurraldetan bizi diren pertsonak ordezkaturata egotea.
- Zenbait adin-taldetako jendea ordezkaturata egotea.
- Palestinarren eskubideen aldeko borrokaren inguruan antolatutako kolektibo sozialetako kideak egotea.

Halaber, ikerketa-prozesuan sakonago aztertu beharreko eduki garrantzitsuak zehaztu eta adostu zituzten UNRWA Euskadik, aholkularitza-enpresak eta parte-hartzaileek. Honako hauek dira:

- Gizarte- eta familia-jatorriko testuingurua.
- Jatorrizko komunitatetik behartuta ateratzea edo lekualdatzea eragin zuten arazoak.
- Migrazio-esperientziaren itxaropenak.
- Irten behar izateak familian izandako eragina.
- Euskadin finkatzeko zailtasunak eta lortutako ikaskuntzak.

- Migrazio-prozesuaren eta/edo behartutako lekualdaketa eragina bizi-baldintzetan.
- Migratzaileek egungo egoeran dituzten beharrak eta aukerak.
- Eragin ekonomikoa: migrazioaren oinarrian arrazoi ekonomikoak badaude, sorlekuan geratutako familiaren ekonomia benetan hobetzen den ikustea.
- Rol-aldaketa: ugaltze- eta zaintza-rolak arduratzen zen pertsona (ama) joaten denean familia barruan rola aldatu ote diren aztertzea, eta familiako zein kidek hartu dituzten emakumeak betetzen zituen rol horiek. Edo, gizonetako joaten bada, zein den sorlekuan haren hornitzaile-rola betetzeko estrategia.
- Lotura eta komunikazioa: migratzaileek familiarekin eta komunitatearekin duten komunikazio- eta lotura-harremana nola hautematen den aztertu behar da.
- Komunitatearen gaineko eragina. Emakumea edo gizona joaten denean komunitateak hori nola bizi duen aztertzea, nola hautematen duen komunitatetik ateratzeko beharra, eta nolakoa den pertsona hori ez egotearen iruditegia. Puntu horretan, ikusi behar da ea pertsona hori zaintzaile edo hornitzaile rolaekin identifikatzen den, eta aldeko edo kontrako iritzia soziala dagoen.
- Lotura eta parte-hartzea Euskadiko herri palestinarren aldarrikapenen alde egiten duten elkarten sarean.

Eskubide- eta genero-ikuspegian oinarritutako azterketan sakontzeko asmoz, azpikategoria hauek zehaztu ziren:

- Enplegua lortzea: lan-aukerak, alde aurreko prestakuntzaren eta ibilbide akademikoaren aitorpena, egungo lana, lan baldintzak.
- Baliabide sozialak eskuratzea: errefuxiatu-izaera onartzeko kudeaketak, etxebizitza eta osasuna eskuratzea, gizarte-laguntzak lortzea.
- Gutxiespen soziala eta integrazioa: euskal gizartean bizitzearen esperientzia.
- Tentsioa eta aldaketa genero-rol eta -estereotipoetan: ea kultura-mailan talkarik gertatu den maskulinitatearen eta feminitatearen imajinarioetan, eta, hala bada, ea gogoeta pertsonalak eta aldaketak eragin dituen genero-estereotipoen eraketan.
- Ahalduntzea eta generoa deseraikitzea: agerian jartzea, beste errealitate batera migratu duten emakumeen posizioari eta egoerari dagokienez, nola aldatu den gizonen emakume horiek ikusteko eta tratatzeko modua, eta ea

emakume horien ustez migrazio-prozesua eragile bihurtzeko prozesu bat den.

Kategoria eta azpikategoria analitiko horiek elkarriketetan zehar egindako galderak prestatzeko erabili ditugu⁶. Lortutako informazioa analisi-gakoetan sartu da, ondoren prozesatzeko.

Bestalde, elkarriketa pertsonalak egin zaizkie kartografia garatzeko erabilitako lagineko pertsonen, haien lekukotasuna lortzeko; guztira, bost bizitza-istorio bildu ditugu, palestinar jatorriko lau gizonenak eta emakume batena.

Taula honetan, parte hartu dutenen laburpen txiki bat egin dugu, baita bizitza-istorio bakoitzean erabilitako siglena ere.

Izen-abizenak	Jatorria	Ezaugarri nagusiak
Mohammed Abu_Jbara	Gazako zerrenda	2016an iritsi zen Espainiar estatura, eta asiloa eta babesa eskatu zituen. Bizkaian bizi da 2016ko abuztuaz geroztik.
Mohammed Farajallah	Hebron, Zisjordania	Arrazoi familiarrengatik migratu zuen, 2014an. Bizkaian bizi da. Palestinaren aldeko aktibista
Mohamed Laymon	Tulkarem, Zisjordania	2017an iritsi zen Espainiar estatura, eta asiloa eta babesa eskatu zituen. Bizkaian bizi da urte hartaz geroztik.
Nadia Nemeh Shamaly	Bermeo, Bizkaia	Ama eta aita palestinarrek ditu. Palestinaren aldeko aktibista
Kamal Ubeid	Beddawiko kanpamentua, Libano.	2018an iritsi zen Espainiar estatura, eta asiloa eta babesa eskatu zituen. Arabian bizi da urte hartaz geroztik.

6 Elkarrizketen gidoiak dokumentuaren 2. eranskinean daude.

2. TEKNIKA. ERDIEGITURATUTAKO ELKARRIZKETA SAKONAK

Lehenago esan bezala, kartografia hau egiteko, palestinarren eta/edo asilo- edo babes-egoeran dauden —Palestina, Zisjordanian, Libanon edo Euskadin dauden— pertsonen eskubideen alde lan egiten duten erakunde eta kolektibo batzuen ekarpenak jaso nahi izan ditugu.

Berez, hasierako proposamenak parte-hartzean oinarritutako bi tailer egitea aurreikusten zuen, Zas! Sarea osatzen duten zortzi erakunderekin, gutxienez. Azkenik, COVID-19a dela eta ezarritako mugen ondorioz, ezinezkoa zela ikusi genuen, eta banakako elkarrizketak egin zaizkie UNRWA Euskadik eta ZAS! Sarearen koordinatzaileak proposatutako lau erakunderi, honako irizpide hauek kontuan hartuta:

- Haien jarduera- eta sentsibilizazio-arloetako batzuek zuzeneko lotura izatea aztertzen ari garen ikerketa-eremuarekin.
- UNRWA Euskadirekin eta errefuxiatuei laguntzeko ekintzak egiten dituzten beste eragile eta erakunde batzuekin aliantzak sortu ahal izatea, diagnostikoaren ondorioetatik abiatuta hartuko diren erantzun-neurriak antolatzeko.

Irizpide horiek kontuan hartuta, entitate hauen laguntza izan dugu:

- Immigrazioaren Euskal Behatokia – Ikuspegi⁷
- SodePaz⁸
- SOS Arrazakeria Gipuzkoa⁹



Zisjordania. © Argazkilari ezezaguna / UNRWaren artxiboak

7 <https://www.ikuspegi.eus/eus/>

8 <https://sodepaz.org/>

9 <https://sosracismo.eu/sos-racismo-gipuzkoa-sos-arrazakeria-gipuzkoa/>

- Arabako Gurutze Gorria¹⁰
- Zehar Errefuxiatuekin¹¹

Zas! Sarea osatzen duten erakunde horiekin datuak lortzeko, zenbait analisi-kategoria zehaztu dira alde zurretik, eta hainbat gida-galdera diseinatu dira kategoriatan oinarrituta. Hala, ikerlanaren helburua kontuan hartuta, honako analisi-alderdi hauek zehaztu dira:

- Giza eskubideen kategoria
 - Giza mugikortasuna: migrazioa eta nazioarteko babesak
 - Arrazismoa eta xenofobia
 - Jardunbide egokiak, eskubide ikuspegitik
- Kultura-aniztasunaren kategoria
 - Kultur-estereotipoak
 - Iruditegi kolektiboa
- Genero-berdintasunaren kategoria
 - Genero-estereotipoak eta -rolak
 - Genero-desberdinkeria eta desberdinkeria intersektionala

Sailkapen horretatik abiatuta, elkarrizketen gidoiak¹² egin ziren, eta lortutako informazioa analisi-gakoen arabera sailkatu da, ondoren prozesatze aldera.

Euskadiko komunitate palestinarren memoriaren kartografia hau egiteko prozesuak 10 hilabete iraun du; 2021eko irailean hasi zen prozesua, eta 2022ko maiatzetik ekainera bitartean egin da dokumentu hau. Dokumentu hau egiteko lan-prozesuak fase hauek izan ditu:

a) Ikerketarako proposamen metodologikoa egitea

Lehenik eta behin, UNA gestión y comunicación aholkularitza-enpresak, ikerlana egiteko ardura izan duen aldetik, ikerketa-prozesurako proposamen metodologikoa eta aztergaiaren diagnostikoa egiteko hurbilketa kuantitatibo eta kualitatiborako proposamena diseinatu zituen. Horretarako, gaiei buruz argitaratutako txostenak eta ikerlanak bilatu ziren; esparru teorikoan jaso dira.

¹⁰ <http://www.cruzrojaalava.es/>

¹¹ <https://zehar.eus/eu/>

¹² Dokumentuaren IV. Eranskinean.

b) Landa-lanerako pertsona-lagina aukeratzea

Landa-laneko fase kualitatiboan erabili den lagina Una gestión y comunicación enpresak aukeratu zuen, UNRWA Euskadiren taldearekin koordinatuta, hasieran mahaigaineratutako erreferentzia-terminoekin bat etorritik, eta dokumentuaren 4. puntuan aipatutako hautaketa-irizpideetan oinarrituta.

c) Analisi-kategoriak zehaztea

Behin lagina mugatu ondoren, prozesuaren hurrengo urratsean, ardatza zer analisi-kategoriatan jarri behar zen zehaztu zen. Ondoren, kategoria horietako bakoitza analisi-gako desberdinetan banatu zen. Gako horietan oinarrituta, elkarriketen gidoiak diseinatzeko erabiliko ziren galderak zehaztu ziren.

d) Informazioa biltzeko tresnak diseinatzea

Informazioa biltzeko, hainbat tresna erabiltzearen aldeko apustua egin zen, ikerketaren aztergaiari buruzko ahalik eta hurbilketarik osoena eta askotarikoena egiteko. Hala, bi teknika metodologiko lehenetsi ziren:

- Palestinarekin lotuta duten pertsonen bizitza-istorioak.
- Erdiegituratutako elkarriketa sakonak, diagnostikoaren gaiari eta xedeari lotutako erakundeekin.

e) Datuen azterketa eta interpretazioa

Lan-prozesuaren lehen fasean, jatorri palestinarra edo Palestinarekin familia-lotura duten pertsonen elkarriketa egin zitzairen, haien bizitza-istorioak egiteko. Ondoren, datuak jasotzearekin batera, elkarriketa egin zitzaion. Zaz! Sarea osatzen duten eta jatorrizko lurraldean nahiz Euskadin pertsona horiei finkatzen laguntzeko esku hartzen duten erakundeetako bakoitzari.

Landa-laneko faseak egin ondoren, bildutako informazioa sistematizatu genuen, ideiak bildu eta interpretazioak egiteko.

f) Azken txostena egitea

Prozesuaren amaieran, interpretatutako informazioa sistematizatu, triangulatu eta dokumentu honetan jaso genuen.

3. EUSKADIKO PALESTINARRAREN ISTORIOAK, ZORIGAIZTOZ ETA DUINTASUNEZ BETEAK

Euskadin bizi diren bost palestinarren bizitza-istorioak jaso dira atal honetan, aurreko atalean deskribatu dugun prozesuan egindako elkarrizketak oinarri hartuta. Elkarrizketetan, honako hauek izan ziren galderak, besteak beste: nola bizi ziren haiek edo haien senideak Palestinan? Zer laguntza izan zuten bidaia egin ahal izateko? Zer duela eta galera onartu behar izan dituzte? Zer errealitate aurkitu zituzten Euskadira iritsi zirenean?

3.1. MOHAMMED ABU JBARA



Gazako blokeotik eta erasoaldietatik ihes egitea

Mohammed seigarren semea da; lau arreba eta bi anaia ditu, eta bera azken-aurrekoa da. **Gazako zerrendatik etorri da**, Tel Alhawa ingurutik, baina gaur egun arreba bat soilik bizi da han; gainerako senideak —ama, aita eta anai-arrebak— Suedian, Turkian eta Euskadin bizi dira.

Mohammed eta haren senideak —baita izebak eta osabak ere— Gazako zerrendan bizi izan dira, eta ondo ezagutzen dute; han bizi ziren, gerrek leku segurua-goetara alde egitera behartu zituzten arte. Kanada, Kuwait, Saudi Arabia eta Estatu Batuak aukeratu zituzten finkatzeko eta beren bizitzarekin jarraitzeko, Gazak etengabe jasaten dituen jazarpenen eta indarkerien mehatxupean egon ondoren. Izan ere, **munduko aire zabaleko espetxerik handiena** delako da Gaza ezaguna.

Mohammed 1991n jaio zen. Lasaitasun tirabiratsuko garaia zen, indarkeria ez baitzen aurreko urteetan bezain handia, Israelek eta Palestinak sinatutako akordioen ondorioz.

Mohammed erlijio musulmaneko familia batekoa da: amak etxe barruan egiten zuen lan, seme-alabak zaindu eta hazten, eta aitak, etxetik kanpo, elektrizitate-

-enpresa batean, kalean eta bulegoetan zerbitzuak egiten. Anai-arrebak eskolara eta institutura joaten ziren, eta unibertsitatean sartu eta prestakuntza akademikoa amaitzeko asmoa zuten.

Kontatu duenez, aitaren lerroko senide gutxi daude Gazan, familiaren beste adar batzuekin alderatuta.

«Oso senide gutxi gara Palestinan. Abu Jbaratarrok ia 150 gara, ez gara 200era iristen. Gazan 3.000 eta 4.000 laguneko familiak daude. Lehengusuekin eta lehengusinekin ezkontzeko ohitura, familia zabaltzeko, basamortuko jendearena da. Gure kalean basamortuko jendea bizi da, eta inoiz ez dira familiatik kanpokoekin ezkontzen, baizik eta senide batekin beti».

Esan bezala, Mohammed, bere familia bezala, tradizio eta erlijio musulmanekoa da. Berak praktikatzailerik ez hertsizat du bere burua, emakumeek izan behar dituzten eskubideei buruz duen iritziagatik.

*«Erljio musulmanekoak gara; ni ez naiz hertsia, ni modernoa naiz. **Erljio musulmana jendeak asko epaitzen duen erlijioa da.** Nik beti diot erlijioa epaitu nahi bada Korana irakurri behar dela. Musulman hertsia daude, eta gure erlijioan ez dugu zertan hertsia izan. Ni ez naiz hertsia; berba baterako, ez zaidalako bidezkoa iruditzen emakumeei kalera irteten ez uztea. Emakumeei irteten ez uztea eta gizonak ateratzea, niri ez zait zuzena iruditzen. Mutil musulman hertsiek ez diete uzten neskei bakarrik kalera ateratzen, bakarrik bidaiatzen, parrandan ibiltzen edo zapirik gabe irteten. Modernoek, ez-hertsiek, ordea, beren burua bezala tratatzen dituzte emakumeak; nik horrela egiten dut. Nire familian, nire arrebek aukeratu egin dezakete. Nire lau arrebetatik hiruk zapia janzen dute, eta batek, ez. Hori erabaki zuenean, inork ez zion ezer esan; bere askatasuna da, bai eta zapia jartzea ere. Ziur nago gure familian inork ez dituela horrelako zerbaitetarako behartu».*

Mohammedek txikitatik bere familian sentitu duen askatasunak erabat kontrastatzen du Israelen kontrol- eta indarkeria-egoera soziopolitikoarekin.

*«Beti egon da Israelen kontrola, jaio nintzenetik; beti kontrolatu dute. **2000. urtean hasi zen okerrera egiten.** Egoera normala zen 2000ko Bigarren Intifada hasi zen arte».*

Bere kontakizunean, Mohammedek mugarri bat ezarri du: 2000ko Bigarren Intifadaren ondorioz, indarkeria areagotu egin zen. Lehen Intifadan ez bezala (1987-1993), bigarren indarkeria-boladan, gazte palestinarren atentatu suizidak orokortu ziren israeldarren indarkeria areagotzearekin batera.

Bost urte iraun zuen indarkeria-aldi hartatik, bere bizitza zalantzarik gabe markatu duen gertaera bat gogoratu du Mohammedek: bere lagunik onenetako baten galera.

«**Lagunak galdu ditut nik Palestinan; hil egin dira. Ni txikia nintzen, 2005eko maiatzaren 5ean, otoitz egitera joan aurretik izan zen. Ostiraleroko, nire laguna ikustera joaten nintzen anaiarekin, eta berriketan egiteko esertzen ginen. Eta egun horretan, 2005-05-05ean, anaia eta biok laguna ikustera gindoazela, tarte horretan, gure bizilagunak deitu zigun, eta amaren bila joan behar genuela esan. Itzultzen ari ginen bitartean bonba-zarata handia zegoen, oso hurbil, gure lagunaren etxearen ondoko kale batean. Iritsi ginenean, gure laguna hilda zegoen. Palestinan, norbait hiltzen denean, hura hartu, eta oso azkar joaten gara hilerrira. Horretan sinesten dugu. Palestinan, hildako pertsona lepoan hartu, eta kalean zehar ibiltzen gara, ez dugu autorik hartzen. Israeldarren tanke batek bonba bat jaurti, eta beste zazpi pertsona zauritu zituzten. Ni hor nengo. Ni txikia nintzen, baina ez dut hori ahazten».**

Bera ere hiltzeko arriskuan egon da sarri. Bere kontakizunean, haur baten jakinmina eta eguneroko bizitzako pasadizoak —gustuko du zer gertatzen den ikustea, mendira joatea, zuhaitzetara igotzea eta itsasoaz gozatzea— kontatu ditu, baina, betiere, **hainbat indarkeria-motaren erabilera sistematikoak markatutako se-tio** baten inguruabarrek eragindako pasadizoak dira.

«Anaiak eta biok gauzak ikusteko jakinmina genuen; askotan joaten ginen arrantzan edo ehizan egitera, zuhaitzetara igotzen ginen, gauzak bilatzen ibiltzen ginen. Behin, txikia nintzenean, zuhaitz asko zeuzkan kale txiki-txiki batera joan ginen. Kale horretatik irteteko, atzera egin behar da, ez baitago beste aterabiderik. Zain geunden, entzuten genuen helikopteroa iritsiko ote zen. Bitartean, tankeei begira geunden; Israelgo tankeak eta Hamaseko militar palestinarrek zeuden. Bat-batean, helikoptero hori iritsi zen, eta tiro egiten hasi zen, gu joan gintezen. Ez gintuzten zuzenean tirokatu; izan ere, nahi izan balute, hilko gintuzketen. Gugandik oso hurbil ari ziren tiro egiten,



Gaza. © Argazkilari ezezaguna / UNRWaren artxiboak

eta gu lasterka hasi ginen. Beste batean, Gazako militar batek Israelgo tanke bati misil txiki bat nola jaurtitzen zion ikustera joan ginen».

Gaur egun, Mohammedek 30 urte ditu, eta entzuteko hain beldurgarriak diren gertaera horiek kontatu dituen bitartean, hausnartu egin du zergatik jartzen zen hain arrisku handiko egoeretan.

Gure iritziz, hauek izan daitezke bere burua arriskuan jartzea eragiten zuten elementuak: alde batetik, gaztetasuna, eta, bestetik, **indarkeriaren eta heriotzaren normalizazioa, eskubideak urratuta zeuden ingurune batean**. Baita errealitatea ezagutzeko eta lagundu nahi izateko gogoia ere.

«Jakinmina nuen, eta zer gertatzen zen ikustera joaten nintzen; hori zen nire arazoa. Lagundu nahi nuelako edo zer gertatzen zen jakin nahi nuelako, uste dut».

Hala ere, ezinezkoa da Israelgo armadaren etengabeko erasoetatik ihes egitea eta babestea, are gehiago une haietan, indarkeria areagotu egin baitzen eta erasoaldi militarrek baitzeuden. Mohammedek gerra deritze erasoaldi horiei, ihes egin ezi-nezko gerra.

*«Palestinaren aurkako gerra beti da indartsuagoa Gazan, ziur, misil asko jaurtitzen dituztelako. Israelek F16 edo F35 hegazkinekin eraso egin nahi du; potentzia handiko hegazkinak dira. Nik bi edo hiru metroko misil handiak ikusi ditut, lehertu ez direnak; noizean behin gertatzen da, 100etik bat batzuetan ez da lehertzen. Nik bat ikusi dut, eta oso handia zen. Kontua da oso hegazkin indartsuek egiten dutela eraso, herrialdeen arteko gerretarako diren hegazkinak, hala nola AEBren eta Txinaren arteko gerrarako, ez Israelen eta Gazaren arteko gerrarako, Gaza oso txikia baita. Horrelako bonba bat jaurti eta jende asko hil dezakete. **Gazan**, gainera, itsasotik ere eraso egiten dute, itsasontzietatik. **Hiru tokitatik egiten dute eraso: itsasotik, airetik hegazkinen, eta tankeekin ere sartzen saiatzen dira. Soldaduak galtzen dituztenean, alde guztietatik egiten dute eraso, eta zibilak hiltzen dituzte».***

Gerra horietan, **elkartasun- eta erresistentzia-estrategiak** ere antolatzen dira, ahalik eta minik txikienarekin bizi eta hiltzeko. Esaterako, etxean bonba bat leher-tuz gero nola hil nahi zuten erabaki zuten. Horrelako erabakiei buruz hitz egin zu-ten Mohammeden familiaren etxean 2008ko azken egunetan eta 2009aren hasie-
ran, *Berun urtua* izeneko erasoaldi militarrean zehar.

«2008ko gerran, militarrengandik hurbil bizi zen izeba bat gure etxera etorri zen bi-zilagunekin, gure etxea handia zelako, bi solairukoa. Izeba bizilagunekin etorri zen, 28 bat lagun guztira, eta denok beheko solairuan egiten genuen lo; izan ere, zerbait eroriz gero, denok elkarrekin hilko ginatekeen. Horixe izan zen gure pentsamendua, ez sufritzeko. Denok edo bat ere ez».

Mohammed-ek optimismo apur batekin, egun eta gau osoan aireko erasoak eten-gabeak diren aldietan ikasi eta gizarteratu diren formulak partekatzen ditu. Seinale batzuk identifikatu eta ziztu bizian jokatu ahal izatea zen helburua; ezinezkoa dirudi, baina Mohammedek, ezpainetan irribarrea duela, funtziona dezakeela dio.

«Geroago, gauza bat ikasi genuen: **gerran bazaude, kalean edo etxean, zarata dago beti. Bat-batean soinurik ez badago, ezin baduzu entzun, horrek esan nahi du misil bat zuregana datorrela edo hurbil dagoela. Uste dut misil horiek airea xurgatzen dutela; hortaz, ez duzu ezer entzuten, eta lasterka hasi behar duzu. Batzuetan jendearekin funtzionatzen du, azkarra izan beharra dago, eta batzuetan funtzionatzen du. Baina, airea xurgatzen duenez, lasterka egin nahi duzu baina ezin duzu, atera egiten zaitu, ez dakit, magnetikoa balitz bezala, eta ezin duzu lasterka erraz egin».**

Misilekin egindako erasoez gain, israeldarrek badituzte herritarrak ikaratzeko beste modu batzuk.

«Batzuetan, helikopteroekin oso haize gogorra sortzen dute, ateak eta horrelako gauzak apurtzeko. Ez dago lehergailurik, zarata eta haize handia baizik. Hegazkinak al-tuera txikian egiten du hegan, leihoak, ateak eta abar hausteko. Eta ekaitz moduko bat ere sortzen du; izan ere, lurra mugitzen dela senti dezakezu. Eta, batzuetan, lurraz-pian hodiak badaude, hautsi egiten dira».

2009an jasan zuen Mohammedek azken erasoaldia, familiako zenbait kide-rekin ihes egin aurretik. Orduan, berak 18 urte zituen.

«Gerra hasi zen egunean, ordenagailuan jolasten ari nintzen; hilaren 12ko 12:00ak ziren, hain zuzen. Balkoi handia genuen, eta ni kanpora atera nintzen zer gertatzen zen ikustera, zergatik zegoen hegazkinen hotsa; bat-batean lehergailu asko erortzen hasi ziren, eta ni hori ikusten ari nintzen. Une hartan, gaztea nintzela eta pentsatu gabe, etxetik irten nintzen lasterka, anaiaren bila, eremu militar batetik hurbil ikasten baitzuen. Ni oso kezkatuta nengoen eta lasterka joan nintzen. Bat-batean, kalean aurkitu nuen. Hara iristeko, 15 edo 20 minutuz egon nintzen lasterka. Erdibidean aurkitu nuen eta etxera joateko esan nion, baina ni ez nintzen harekin itzuli. Eremu militarerraino jarraitu nuen. Erasoa eta ordubete geroago izango zen, eta artean jende asko zegoen lasterka, iskanbila zegoen. Nik gauza horiek guztiak ikusi ditut. Jendea hiltzen ikusi dut».

Mohammedek azaldu du nola lortu zuen amarekin, aitarekin eta bi anaiarekin ihes egitea, Israelen blokeoa gorabehera. Arrebak, ordea, han geratu ziren, ezkondata zeudelako eta seme-alabak zituztelako, eta, beraz, ezin ziren hain erraz mugitu, Mohammedek dioenez.

«Nire arrebak Gazan geratu ziren, ezkondata zeudelako. Zaharrenak ziren eta ezkondata zeuden, seme-alabak zituzten, eta lana, eta ezin ziren hain erraz mugitu. Gu, mu-

*tilok, beti alde batetik bestera ibiltzen ginenez, **gurasoak kezkatu egiten ziren, eta beste etorkizun bat nahi zuten guretzat. Nik joan nahi nuen, aldatu nahi nuen».***

Joateko erabakia hartu ondoren, Mohammeden aitak, jakinda bere **egoera ekonomiko onari** esker gastu ugariei aurre egiteko aukera izango zutela, hainbat kontakturi deitu zien, pasaporteak lortzeko eta Mauritaniara legalki joan ahal izateko. Palestinako ezagun bat zuten herrialde hartan.

«Gure aitak Afrikako gobernuekin harremana zuen gizon bat ezagutzen zuen: Senegal, Ginea Bissau, Mauritania... Hark jarri gintuen pasaporteak egin zitzakeen norbaitekin harremanetan. Ez dakit nola, baina legezko pasaporteak egin ahal izan zintuen. Horrela, Gazatik atera ahal izan ginen. Bost pasaporte egin eta muga zeharkatu genuen. Pasaporte horiekin, hiru egun eman genituen Kairoko aireportuan. Ondoren, hegazkina hartu genuen, Sudanen geldialdia egin, eta, azkenik, Senegalera iritsi ginen. Han, gizon hori zain genuen».

Mauritaniara iristea ez zen erraza izan. Senegalen zeudela, **Mauritaniara** lehorreko bideetatik sartzeko gomendatu zieten. Hiru egun autoz, errepideetan barna, gatazka baten erdian, nahiz ez zekiten inolako gatazkarik zegoenik.

*«Senegalen zain genuen lagunak Mauritaniara zuzenean joatea gomendatu zigun. Hiru egun eta erdiko bidaia zen Mauritaniako muga zeharkatzeko. Atsedean hartzeko gelditu ginen zuhaitzak zeuden leku batean, eta, tupustean, zuriz jantzitako bi pertsona ikusi genituen. Armak zituzten eskuan. Nik bideo-kamera bat nuen, dena grabatzen ari nintzen, txikia nintzen; ezetz esan zidaten. Hiru egun eta erdi geroago, **Mauritaniara iritsi ginenean, han Al Qaedaekin gerran zeudela ohartu ginen, eta horregatik gelditu gintuztela bidean. Ia 60 aldiz gelditu gintuzten**, ez dakigu nork. Palestinarrak ginela esaten genien, eta ez zen arazorik izan hiriburura, Nuakchotera, iritsi ginen arte. Han, poliziaik lau orduz atxiki gintuen; aitarek lagunak haiekin hitz egin eta atera ahal izan gintuen».*

Mauritanian sei hilabete zeramatzatenean, Mohammedek eta anaia batek Malaysiara joatea erabaki zuten. Bakean bizitzen jarraitzea zuten helburu, beste kultura bat ezagutzea eta unibertsitate-karrera bat ikastea. **Bost urte eman zituen Malaysian**, eta, denbora horretan, barne-dekorazioko ikasketak egin eta turismo-sektorean lan egin zuen.

Urte horietan, **gurasoak** berriro **lekualdatu ziren; orduan, Suediara**. Lehenik, aitak **nazioarteko babesa eskatu zuen**, eta, geroago, amak eta anaia txikiak. Suedian finkatu ostean, artean Gazan bizi zen alabetako batek ihes egin ahal izan zuen, gatazkan zegoen eremu batetik eta, horretaz gain, senarraren indarkeria matxistatik.

Bazirudien Mohammedek eta haren familiak bizitza lasaia zutela azkenean, ondo finkatua. **Ama, aita, arreba bat eta anaia bat, Suedian. Bera eta beste anaia, Malaysian**. Hala ere, indarkeria-egoera etengabea dagoen herrialde batetik ateratzea lortu eta zortzi urtera, Mohammed bat-bateko osasun-arazoak izaten hasi zen. Urdaileko gaixotasun larriak, ondorioak arintzeko tratamendu luzea behar

dutenak. Ez zuen familia kezkarazi nahi, urrun baitzeuden eta lekualdatzeko zailtasunak izango baitzituzten; hori dela eta, beste herrialde batera joatea erabaki zuen, han ere nolabaiteko familia-sarea zuelako, tratamendua eraginkorragoa izango zelakoan. Jordaniara abiatu zen, eta osasuna oso ahula zeukan iritsi zenean, 23 kg galduak zituen.

«Malaysiatik Kanbodiara joan nintzen anaiarekin, eta min handiarekin itzuli nintzen, odolatan. Ospitalera joan nintzen, eta ultzera bat nuela esan zidaten. Ni oso haserre nengoen, triste; kirola egiten nuen, eta, bat-batean, oso gaixorik nengoen. Jordaniara joatea erabaki nuen, tratamendu bat jaso ahal izateko. 2016an, urtarrilean, Jordaniara heldu nintzen. Malaysiatik Jordaniara nindoan tratamendua jasotzera, eta Palestinako pasaportea neraman. Jordaniara, ospitalera, iritsi nintzenean, oso garestia zela ikusi nuen; ordaindu eta ordaindu zen dena. Ni ia hilda nengoen, egia esan, odol-maila baxua neukan, eta oso argal nengoen: hilabetean 23 kg galdu nituen. Hiltzen ari nintzen, eta hango nire lehengusuak odola emaleak ziren. Ez nien gurasoei esan nahi hain txarto nengoela, baina lehengusuren batek nola nengoen esan zion aitari, eta etorri zen».

Mohammedek, oraindik ere osasun eskasa duenak, **familiaren zaintzak jasotzeko Europara egindako bidaia** nolakoa izan zen azaldu du. Aitak gestioak egin zituen Mohammed Jordaniako pasaporterik gabe Suediara joan zedin. Hala ere, Barajasako aireportuko geldialdian, Madrilén, bi polizia zituen zain hegazkinetik irtetean.

«Aitak gizon bati ordaindu zion nik pasaporterik gabe bidaiatu nezan, ezer gabe. Goizeko lauretan, aireportura joan nintzen, Madrilera joateko, eta handik Suediara abiatu behar nuen. Jordaniatik Espainiara, Madriletik Suediara. Emigraziotik pasatu nintzen, hegazkinera ezer gabe sartzen utzi zidaten. Barajasera iritsi nintzenean, bi polizia nituen zain; nire izenez deitu ninduten. Haiekin joateko esan zidaten, ni beldur nintzen eta ia ez nintzen ibiltzeko gai; oso gaixorik nengoen. Gelditu nindutenean, esan nien ezin nuela gehiago, oso gaixorik nengoela. Ordubetez eduki ninduten aireportuko ospitalean, eta gero esan nien Suediara joan nahi nuela, nire familiarekin, oso gaixo nengoelako eta ezin nintzelako bizi nintzen tokian geratu. Esan zidaten lege baten ondorioz ezin nintzela beste leku batera joan, han eskatu behar nuela asiloa. Hiru orduz egon nintzen ezetz esaten, nik familiarekin joan nahi nuela, Suediara. Haiek hemen geratu behar nuela, edo itzuli; ni Jordaniara itzultzeko mehatxu egin zidaten».

Une horretan, eta jabetu gabe, **Dublingo Erregelamenduaren** arabera nazioarteko babesa eskatzeko prozedurari ekin zion Mohammedek. Zehar Errefuxiatuekin elkarteak argitu digunez, araudi hori aplikatuz gero, hau da ondorioa: **«asi-lo-eskaera European iristen den lehen herrialdean bideratzea; horrek eragin egiten die ihes egin ostean hainbat herrialdeetatik igaro diren pertsonen, eta, batzuetan, babes-eskaera zaildu egiten du».**

Bai Mohammedek bai Zehar Errefuxiatuekin elkarteak eskaera egiteko lehen urratsak azaldu dizkigute.

«Lehenik, manifestua egin behar duzu eta esan behar duzu asiloa eskatu nahi duzula, dena komisarian egiten baita. Zure argazkia duen dokumentu bat ematen dizute —nazioarteko babes-manifestua da hori—, eta elkarrizketa bat egiteko hitzordua. Hitzordu horretan, zure istorio guztia kontatu eta frogak eman behar dituzu, besteak beste. Hori geroago osa daiteke, froga gehiago emanez eta gauza gehiago kontatuz, baina, a priori, hori da inflexio-puntua».

«Argazkiak egin zizkidaten, ospitalera bidali ninduten, eta ikertzen hasi ziren, galdeztzen, nola etorri nintzen, zergatik, nire izena... Haiek nire pasaporteko argazkia zuten, eta horrela sartu nintzen. Aireportuan, Gurutze Gorriko gune batean egon nintzen. 36 orduz egon nintzen, eta han txartel gorri bat eman zidaten. Madrilan esan nuen Bartzelonara joan nahi nuela. Ezaguna iruditzen zitzaidan, leku ospetsua zen, baina esan zidaten ezin nuela aukeratu, eta Arrasatera bidali ninduten. Non zegoen ere ez nekien. Gurutze Gorriko bi pertsonarekin joan nintzen, oso ondo zaindu ninduten; egunero egon ziren nirekin ospitalean, alta eman zidaten arte».

Nazioarteko babes-eskaera Barne Ministerioari egin behar zaio zuzenean, eta hark finkatzen ditu harrerarako irizpideak, sarbide-prozedurak eta baliabide psikosozialak, betekizunak betetzen dituzten pertsonentzat. Betekizun horiek ere ministerioak ezartzen ditu.

Babes-eskaera Barne ministerioak kudeatzen duenez, bizilekuak Espainiako estatu osoan daude, hainbat GKEk kudeatuak. Mohammeden kasuan, Gurutze Gorria izan zen GKEa, eta Arrasaten zegoen bizilekua. Han, 2016an, osasuna berreskuratzen zuen bitartean —oraindik ere ez da osorik sendatu—, gaztelania ikasten eta lanean hasteko aukera eman zion lanbide-prestakuntza egiten hasi zen.

Gaur egun, Eibarren bizi da neska-lagunarekin, alokairuko etxe batean. Gaixotasun kronikoaren tratamendu medikoa jasotzen jarraitzen du, paseoak ematen ditu, eta bere osasun-arazoekin bateragarria den lana bilatzen ari da.

«Euskadin ez dut gauza askorik egin gaixotasunagatik, ospitalera joan behar dudalako. Orain hobeto nago, baita maila emozionalean ere, nik gauza asko ikusi baititut Gazan, eta lur jota utzi naute; negar asko egin dut. Ni ahazten saiatzen naiz, baina ezinezkoa da den-dena ahaztea. Hondartzara noa; natura gustatzen zait, ahazten laguntzen didalako, eta, horrela, ahaztu egin dezaket. **Hondartzan nagoenean, ahaztu egiten ditut gertatu zaizkidan gauza horiek».**

3.2. MOHAMMED FARAJALLAH



Hebrondik Zornotzara: beti zain bizitzen ikasten


Mohammed Hebronen jaio zen, **Zisjordaniako hiri palestinar handienean**, alegia. Hiriaren % 80 Palestinako Agintearen mende dago. Gainerako % 20a —hain zuzen, auzo historikoa— Israelen mende dago.

Horrela deskribatu du Mohammedek bere eta senide guztien hiria, **Israelgo okupazioaren pean**.

«Hebronek alde zaharra du. Han, egunero, etxeak lapurtzen dituzte kolonoei emateko; aurrez aurre bizi dira kolonoak eta bertakoak. Kolonoak eraikinetako azken solairuez jabetzen dira; beheko solairuetan, palestinarrak bizi dira, eta kolonoek zaborra botatzen diete egunero. Kaleak hesiz itxi behar ditugu, eraikinetik eraikina doazen babes-hesiak erabiliz, kolonoek kalean dabilen jendeari botatzen dioten zaborra behera ez erortzeko. **Alde Zaharretik** bazoaz, **dena itxita dagoela** ikusiko duzu. **Zeruaren orde, zaborra kalera ez iristeko jarritako teilapeak ikusten dituzu eraikinetan.** Ez da erraza han ibiltzea; leku guztietan daude kolonoak. Orain, Jerusalem eta Gaza daude denen ahotan, baina, Hebron, haiekin bizi beharra dago».

Hirian bizi-baldintza gogorrak izan arren eta okupazio-indarrek etxearen jabetza kentzeko arrisku handia badago ere, Mohammeden familiak hainbat ekimen ekonomiko jarri zituen martxan; Mohammeden aitak eta anaiek parte hartu zuten haietan.

«Aitak 13 urterekin utzi zion eskolara joateari, eta nekazari-lanetan hasi zen. Gero, bi oilo-etxalde ireki zituen; gu haietan aritu ginen lanean. Aitak bere lanean jarraitu zuen, eta gu oilo-etxaldez arduratzen ginen. Lehenik, anaia zaharra, gero txikia eta ostean ni. 16 urte bete nituenean, aitak aurreko negozioak itxi eta behi-etxalde bat irekitzea erabaki zuen. 2000. urteaz ari naiz; orain 2021ean gaude. Lehen, 25 behi genituen, baina orain berak eta osabak 200 dituzte, eta oso abeltegi modernoa da. Esnea ekoizten duten Palestinako enpresei banatzen diete. Zure lanean, etorkizunean, pentsatzen hasten ez bazara, lanean arituko zara hil arte».



Gaza. © Argazkilari ezezaguna / UNRWaren artxiboak

Aita eta bi anaiaz gain, ama eta bi arreba ere baditu Mohammedek. Haiek ere lan-tegian lan egiten ote zuten galdetu genionean, haietaz hitz egin digu. Moham-medek antolaketa patriarkal tradizionala deskribatu du: **ama zaintzari dagokion guztia antolatzeaz arduratzen da**, hala nola seme-alaben zaintzaz eta hazkun-tzaz. Arrebetako bati buruz, ezkondu ondoren lehen umea 15 urterekin izan zuela azaldu digu Mohammedek.

«Arreba txikia oso gazte ezkondu zen, eta lehen alaba 15 urterekin izan zuen; gero, beste haur bat izan zuen».

Apur bat lotsatuta, kanpokoen aurreiritzien beldur, arreba horrek jasandako eta familia osoarentzat ondorioak izan zituen eraso baten berri eman du.

«Arrebak, 24 urte zituela, Jerusalemera joan zen egun batean. Meskitara joan zen, eta ostean merkatura, etxerako gauzak erostera. Etxera bidean, kontrolean, soldadu ba-tek geldiarazi zuen, eta galderak egiten hasi zitzaion: zer zeraman eta abar. Soldadua arreba ukitzen hasi zen. Arrebak bultzatu egin zuen, eta soldadua berriro ukitzen saia-tu zen. Arrebak aitzo bat zeraman erosketa-poltsan, eta bere burua defendatu zuen: soldaduari sartu zion. Lau urtez egon zen espetxean. Familia bateko norbaitek ho-rrelako zerbait egiten duenean, familia osoa geratzen da erregistratuta, familia osoa geratzen da ezbaian, denoi jartzen zaigu marra gorria. Nire datuak ordenagailuan sartzen dituztenean, badakite haren neba naizela eta autotik jaisteko esaten didate; ezin gara leku askotara joan marra gorria dugulako. Nik ezin dut, ez baitidate baime-nik ematen».

Espetxean zegoela, zenbait ikastaro egin zituen Mohammeden arrebak, eta, ho-rrri esker, estetizista da orain. Beste arrebak, ordea, barne-diseinua ikastea erabaki zuen, eta Mohammedek erizaintzako prestakuntza egin zuen.

*«Arrebak espetxean ikasi zuen eta, gero, kanpoan ikasten jarraitu zuen. Guk uniber-tsitatean ikasi dugu; izan ere, ikasteko dirurik ez baduzu, bekak daude. **Palestinako ikasketa-maila oso altua da; baina, ikasten amaitutakoan, bizimodua atera behar duzu.** Han lan egitea oso zaila denez, azkenean denak hasi ginen aitarekin lanean, ez baita erraza ikasitakoarekin lotutako lana aurkitzea. Jende gehiena langa-bezian dago. Non aurkituko dugu lana han?».*

Palestinako lurralde okupatuko langabezia-tasa handiak ez datoz bat ema-kumeen eta gizonen prestakuntza-maila handiarekin. Elkarriketa batean esan digutenez, mugitzeko eta jarduteko murrizketak dira Palestinako hainbeste biztanlek unibertsitateko prestakuntza aukeratzeko arrazoietak bat; izan ere, *«zer egingo duzu, bestela?»*. Esan bezala, emakumeek zein gizonen unibertsitate-presta-kuntza dute. Hala ere, ez dituzte horretarako arrazoi berak; hain zuzen, Palestinako gizartean, prestakuntza akademikoa duten emakumeek aukera gehiago dituzte egoera ekonomiko ona duten gizonekin ezkontzeko, **indarkeria bikoitza** —oku-

pazioa eta heteropatriarkatua— **jasaten duen gizartean** hori baita haien aukera bakarretako bat.

Gizonek, ordea, errazago dute egindako prestakuntzarekin lotutako lanbidea aurkitzea. Mohammeden kasuan, erizaintzako prestakuntzaz gain, goi-mailako administrazio-gradu bat egin zuen, eta hori funtsezkoa izan zen Hebrongo Udalean lan egiteko azterketa bat gainditzeko.

«Amaitu nuenean, udaleko eskaintza bat atera zen. Nik izena eman eta azterketa egin nuen, eta, hara, notarik onena lortu nuen. Hasieran, kontulari jardun nuen, nagusi baten menpean. Bi urteren ondoren, kontabilitateko buru izendatu ninduten, eta sei langile nituen nire taldean. Goizean, han egiten nuen lan. Gurasoei bizi nintzenez, ez nuen ia dirurik gastatzen; horri esker, aurreztu egin nuen, eta nire etxea eraiki eta autoa erosi ahal izan nituen».

Horrelakoa zen Mohammeden bizitza, harik eta, egun batean, lanera bidean, atzerriarren talde bat aurkitu zuen arte; maitasun-harremana hasi zuen talde horretako emakume batekin, eta, orain, haur baten gurasoak dira.

*«Batzuetan, kanpotik etorritako pertsonak ikusten dituzu zerbait bilatzen. Ea zerbait nahi zuten ikustera hurbildu nintzen, eta meskita aurkitzen lagundu nien. Ezagutu nuenean, haren hirugarren bidaia zen; Palestinaren aldeko aktibista zen. Orduan hasi zen orain nire emazte ohia denaren eta bion arteko harremana. Berrito bidaia zuen, elkar ikus genezan. Ni Belenera joaten nintzen lanetik, bera hotel batean baitzegoen. Bidaia horretan nire familia ezagutu zuen, eta etxean hartu zuen ostatu; aitak esan zuen bisitak etortzen direnean etxean geratzen direla. Orduan, nire familiak berarekin ezkontzeko proposatu zidan. Nik pentsatzen nuen bera beste kultura batekoa zela, beste herrialde batekoa, beste erlijio batekoa; Europatik datoz, eta **guk hor ez duguz erabaki esanik**. Nik gurasoei esan nien ez zela musulmana, eta gurasoek haren alde egin zuten».*

Azkenean, bikotea ezkondu egin zen. Palestinan finkatu zuten bizilekua, eta, urtebete geroago, haur bat izan zuten.

*«Espainiako ezkontza egin genuen, eta, gero, palestinarra. Lehenengo, gurasoen etxean egon ginen, hiru solairu dituelako, eta bakarrik egon ginen hirugarren solairuan. Handik urtebetera, haurdun geratu zen, eta esan zidan hona etorri nahi zuela, han bizitzea nahikoa zaila zelako, umeak ez zuela merezi soldaduak eta kontrolak ikustea, bizimodu eskasa izatea. **Palestina utzi eta hona nire semearekin etortzea erabaki nuen**».*

Jatorrizko herrialdea eta familia uzteko erabakia hartzea ez zen erraza izan Mohammedentzat. Hebronen, zeukanaren balantze positiboa egiten zuen, eta Europako herrialde batean bizitzen hastea zer izan zitekeen jabetzen zen.

«Lana utzi nuen, oso bizi-maila ona, eta beste herrialde batera etorri nintzen, hartaz ezer ere jakin gabe. Aitaren borondatearen kontra etorri nintzen. Euskadin askatasun handiagoa dago, bizitza librea da, eta segurtasun handiagoa dago, baina baita ezjakintasun handia ere, eta ez duzu sentitzen herri honetakoa zarelara. Egiten duzuna egiten duzula, "moroa" izango zara, arabiarra. Hemengoa bazara, ezin duzu jakin zertaz ari naizen; kanpokoa izan behar duzu hori sentitzeko. Emazte ohiak esajeratu egiten nuela esaten zidan beti, harik eta Belgikara lan egitera joan zen arte; han, ni hemen bezala tratatu zuten».

Zornotzara —emazte ohia bizi zen udalerria— iristea gogorra izan zen, bere familia urrun zegoelako eta kultura-desberdintasunak zeudelako.

«Ez zitzaidan gustatu hemen bizitzea, erritmoa dela eta. Ni oso mutil lagunkoia naiz. Hona iritsi nintzen, eta lau egunez egon nintzen inor ikusi gabe, eta inork ez zuen inor-taz galdetzen. Palestinara itzultzen naizen bakoitzean, astebete behar izaten dut bisita guztiak jasotzeko; hemen, orde, neuk joan behar nuen jendea agurtzera, eta hori ez zait batere hurbila iruditzen. Hemen, jendea lanera doa, eta, gero, atsedean hartzen du; lana eta atsedena, ez du besterik. Eta asteburua iristen denean, denak gastatzera».

Hizkuntza garrantzitsua da, bai besteekin komunikatzeko, bai eskubideak defendatzeko eta nork bere helburuak lortu ahal izateko. Hori dela eta, Bizkaian egon zen lehen urtean, Mohammedek gaztelania ikastaro trinko batean eman zuen ize-na.

«Gauzek nola funtzionatzen duten jakin ondoren, gaztelania-ikastaro trinko bat ikasten hasi nintzen. Azkenean, ikastaro trinkoa egiteagatik, jendeari entzuteagatik, telebista ikusteagatik eta abar, urtebetean gaztelaniaz hitz egiten hasi nintzen, eta gero hemengo bizitza nolakoa zen ohartzen hasi nintzen».

«Nola funtzionatzen duten gauzek» esaldia askotan esan du Mohammedek; pixkanaka, esaldi horren haria askatu du, lanean jasan izan dituen abusu-egoerak deskribatzeko.

«Hiru urte eman nituen hotel batean lanean. Lanak asko lagundu zidan ulertzen. Lana eman zidaten, nitaz aprobeztatzen ari zirelako. Lan batean, sei hilabete egon nintzen kontraturik gabe, eta beste sei hilabete, kontratuarekin. Handik gutxira jakin nuen zergatik: kontratu mugagabea ez egitearren. Han bi urte eta erdi eman ostean jakin nuen. Gainera, ordaintzen zigunari erreparatzen nion, eta oso eskasa zen. Ordua bi euroan kobratzen nuen, eta egunean 12 orduez egiten genuen lan. Beste batzuek hobeto kobratzen zuten, eta kontratuarekin, gauza horiek ezagutzen zituztelako; bazekiten zer eskubide zuten. 2017an, kontratua egingo zigula esan zigun nagusiak, eta urtearen amaieran mugagabe egingo gintuela. Ni harreragilea nintzen hor. Urtearen amaiera iritsi zen; ni kontratuaren zain nengoen, eta etxera bidali gintuen».

Mohammedek Palestinan prestakuntza egiaztatua bazuen ere, Schengen espaziotik kanpo lortutako titulazioa homologatzeko eskatzen diren izapideak eta atzerapen-denborak direla eta, ezin izan du erabili bere curriculumaz ziurtatzeko.

Mohammedek konparatu egiten ditu Euskadin zenbait aitorpen lortzeko itxaron behar den denbora eta okupazioak bere sorterrian ezarritakoa.

«Hemen itxaroten irakasten dute, ikasketa-homologazioak, bizileku-baimenak, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBEa) eta abar jasotzeko. Han ere itxaronarazten dizute, irten eta sartu ahal izateko. Adibidez, palestinar batek, etxetik irteteko, Egiptoko mugatik atera behar du, eta Palestinako, Israelgo eta Jordaniako gobernuetatik igaro. Hiru gobernutatik igaro beharra dago. Guztira, zortzi kilometro baino gutxiago dira. 2 edo 10 ordu egon gaitzeko han, gobernu bakoitzaren jokabidearen arabera. Itxaronarazten digute; ez dizut esango nolako beroa pasatzen dugun. Atea ixten dute, eta autobusean geratu behar duzu. Itxaroten irakatsi digute, horixe da dagoena. Horren guztiaren ondoren, Jordaniara joan behar duzu, aireportura, eta handik bidaiatu. Gurasoen etxetik Tel Aviveko aireportura 40 minutu daude, baina nik ezin dut hortik bidaiatu; esan dudan guztia gurutzatu behar dut. Nire emazte ohia, Espainiatik Palestinara doanean, Madrildik Palestinara doa zuzenean. Lau orduan Palestinan dago, eta, beste ordubetea, gurasoen etxean. Nik, bidaia egiten dudanean, 24 ordu behar ditut etxera iristeko. Bera iritsi, afaldu eta lo egitera joaten da, eta, gero, ni iristen naiz. Horrelakoa izaten da guretzat bidaia, nahitaez».

Mohammedek 2018an berritu zuen bizileku-baimena; prozesu mingarria izan zen, eta Mohammeden eskubideak urratu zituen.

«2018an, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBEa) eskatu behar izan nuen, ez nuelako lanik aurkitzen. Izapideak egin nituen, eta onartu egin zuten. Handik 15 egunera, nire atzerritarren nortasun-zenbakia (AIZ), nire familiaren AIZ, iraungitzear zegoela esan zidaten, eta berritu egin behar zela. Akabo bakea! Egunero hara eta hona joan behar izan nuen; bulego batetik beste batera bidaltzen zaituzte. Nik uste nuen hori Palestinan bakarrik gertatzen zela. AIZ iraungi egin zen, eta polizia-etxean atzerritarren bulegora bidali ninduten. Nik ez dut inoiz gauza nazkagarriagorik ikusi: langileek ez ezik, segurtasunekoek ere txarto tratatzen zaituzte. Paperak eskatu eta hitzordua eman zidaten atzerritarren bulegoan, hilabete batzuk geroagorako. Palestinan soilik lor nezakeen papera eskatu zidaten. Semearekin joan nintzen hara. Izapideak egiteko 10 egun ematea zen asmoa, baina Israelgo Gobernuak atxiki egin ninduen, nire familia-egoera eguneratzeko eskatuta. Denborak aurrera egin zuen, 10 egun, 15 egun, Palestinatik irten ezinik. AIZ iraungi egin zen, eta, hortaz, ezin nintzen Espainian sartu. Enbaxadari jakinarazi nion, eta han esan zidaten ezin zutela ezer egin, ezin nintzela Espainiara itzuli. AIZ eskatu nuen, eta ezer ez. Palestinan geratu nintzen. Bi hilabete eman nituen borrokan, itzultzeko bisa eman zidaten arte. Paper guztiekin itzuli nintzen, baina AIZrik gabe. Ezin nuen lanik egin AIZrik ez nuelako; une hartan legez kanpo nongoen Espainian. Azkenean, zortzi hilabete behar izan nituen AIZ berriro egiteko. Bien bitartean, nire familiak ekonomikoki lagundu zidan Palestinatik».

Mohammeden kasuak argi eta garbi adierazten du zer-nolako eragin negatiboak dituen **administrazio publikoen ebazpenak betetzeko epeak luzatzeak**. Ohi-koa den arrazismo instituzionala, eta Mohammedi frustrazioa eragiten diona.

«Orain arte arrazakeria hori salatu duenak ez du ezer lortu. Arrazismoa da dagoen gauzarik itsusiena, okupazioa baino okerragoa. Okupazioak mina ematen dio gizar-teari, partekatutako zerbait da, baina arrazismo horrek zuzenean ematen dizu min, zuk bakarrik jasaten duzu. Izan ere, azkenean zuk ez dakizu nor naizen, nola pentsa-tzen dudan, zer ikasketa-maila dudan, zer lan egin dudan nire bizitzan, zer ikusi du-dan nire bizitzan. Zuk nire izenagatik epaitzen nauzu».

Urtero, Immigrazioaren Euskal Behatokiak, Ikuspegik¹³, agerian jartzen ditu euskal gizartearen jatorriagatik dauden estereotipoak eta aurreiritziak; izan ere, atzerrita-rrak diskriminatzea eragin dezakete bertakoen aldean, bai eta, horren ondorioz, zenbait eskubide zuzenean edo zeharka ukatzea ere. Halaber, diskriminazio ho-rrek desberdintasun arrakala sakontzen du, eta horrek inpaktu negatibo larriak eragiten dizkie egunero jasaten dituztenei.

3.3. MOHAMMED LAYMON



Bizitza libre baterako errezetak

Mohammed 1991n jaio zen, Zisjordanian, Tulkarem izeneko udalerrian. 1993. urtean Oslon sinatutako akordioen ondorioz, Palestinako Aginte Nazionala (PAN) kudeatzen hasi zen udalerri hori, Israelgo gobernuaren ordeiz.

Israelgo armada ezin da **A eskualdeko** zisjordaniar lurraldeetan sartu, **kontrol ad-ministratiboa eta militarra PANen esku baitago**. Zisjordaniako % 3 hartzen du eskualde horrek, eta, han, beste hiri batzuen artean, Tulkarem dago, Mohammed-en eta haren lau anaiei eta bost arreben sorterrria.

Nahiz eta akordioetan adostutakoaren arabera Israelek lurralde horien kontrolik izan ez, behin edo behin bonbardatu dituztela azaldu du Mohammedek. Txikia zela eskolan zegoenean, bonbardaketa bat izan zela kontatu digu.

«Etorkizuna nolakoa den ikusten dugu han, **inork ez daki nork jarraituko duen bi-zirik, biziko den, bere seme-alabak hilko diren, bera hilko duten, edo lehegailu batek etxea joko duen...** niri eskolan gertatu zitzaidan. Gauez ari nintzen ikasten. Eskola suntsituta zegoen, eta beste eskola batera joaten ginen, 16:00etatik 21:00eta-ra, eta eskola bonbardatu zuten. Ni lorategian nengoen. Bat-batean dena beltza ze-goen, ez nuen ezer entzuten, eta lasterka hasi nintzen ez dakit nora».

Seme zaharrena da Mohammed, eta gogoan du betidanik nahi izan duela Zisjor-daniatik atera, jasan behar izan duen indarkeriagatik. Gainera, Estatu Batuetan bizi

13 Ikuspegik | Immigrazioaren Euskal Behatokia

ziren haren osaba-izeba batzuk, eta berak ere herrialde horretara bidaiatu nahi zuen.

«Osaba-izebak eta aitona Louisianan bizi dira. Mundu osoan banatuta dauzkat senideak. Amari esaten nion, **bakean, aske eta lasai bizitzeko, joan egin beharko genukeela**. Nik beti esaten nuen joan egin nahi nuela, eta familiak nire alde egiten zuen. Beste erritmo batean bizi nahi dut nik, ez etxean eta ezkondata egon, egun bat gerran, egun bat bakean».

Argi zeukan bidaiatu nahi zuela, eta, institutua amaitutakoan, lanean hasi zen, dirua irabazteko eta bidaia ordaindu ahal izateko. Lehenik jatetxe batean, eta gero harrobi batean urte eta erdiz; horri esker lortu zuen aurrezteak.

Bizi zen lekuan batere aukerarik ez zegoela azaldu du Mohammedek. Esate baterako, Israelgo armadak udalerrien arteko mugan jartzen dituen kontrol mugikorrek oztopo nagusia ziren.

«Irtetea segurua bazen, atera egiten ginen; bestela, ez, batzuetan kontrol asko jartzen baitituzte bidean, eta, horrela, nahiago nuen ez atera. Nire familia hiriaren erdigunean bizi zen, eta han ez zegoen arazorik. Ni lanean aritzen nintzen, eta noiz bidaia-tuko nuen pentsatzen nuen».

2014an hasi zen Estatu Batuetara bidaiatzeko bisa eskatzeko izapideak egiten. Hori baino lehen, Jerusalemen sartzeko baimena eskatu behar da. Kasu batzuetan edo zenbait pertsonarentzat, zaila da baimen hori lortzea.

«Gu **ezin gara Jerusalemen sartu, eta sartzeko baimena eskatu behar dugu**. Ez dakit zergatik, baina esan zidaten ez nuela inoiz Israelen sartzeko baimenik lortuko.



Zisjordania. © Argazkilari ezezaguna / UNRWaren artxiboak

Aitari baimena eman diote; bera sartu eta itzuli egin da. Anaia batek barruko enpresa batean egiten du lan, Zisjordaniako mugan, okupatutako lurraldearen zati batean. Baimenik ezean, ezin da haraino iritsi, baina beste leku batera bazoaz ere baimena behar duzu. Enpresa askok egiten dute lan mugetan. Hara joateko baimena behar duzu, eta anaiak hor egiten du lan orain. Niri ez zidaten sartzeko baimenik eman, eta ez dakit zergatik».

Palestinarrak **itxarotera** ohituta daude: Israelgo poliziak lurralde okupatueta sartzeko ezarrita dituen kontrol-gune finkoetan itxaron behar dute, bai eta ausaz ezartzen dituen kontrol mugikorretan ere.

Mohammedek sei urte zeramatzan dirua aurrezten, eta bizitza seguruago batera-ko bidea irekiko zion baimen baten zain.

*«Checkpointera joan nintzen Israelgo poliziaren bulegoetara abiatzeko. Jakin egin nahi nuen zergatik ez zidaten egun bakar baterako baimena ematen, Jerusalemera joateko; horretarako sartu nintzen. Checkpointera iritsi ostean, ordubete behar da igarotzeko. Arropa kentzeko esan zidaten, nire dokumentazioa hartu eta zer bidetatik joango nintzen galdetu (lehenetik, bigarrenetik, hirugarrenetik, laugarrenetik...). Azkenean, barrura iritsi nintzen, eta itxaron behar izan nuen. Neskak deitu eta esan zidan ez zidatela baimena emango, beste batekin hitz egin behar nuela. Nik galdetu nion zergatik ez zidaten baimena ematen. Ordubete egon nintzen zain. **Bizitza osoa baimena eskatzen, eta ez zidaten inoiz ematen**, eta arrazoia jakin nahi nuen. Esan nion ez nintzela handik irtengo, zergatia esan arte. Haserretzen hasi nintzen, ez zidatelako ezer esaten. Bi militar etorri ziren nigana lasterka, bultzatu egin ninduten, pistola atera eta alde egiteko esan zidaten. Nik ezetz esan nuen, espetxera eramateko edo hiltzeko edo baimena emateko. Barruan zeuden palestinarrek lasaitu egin nahi ninduten, baina ez. Nik sei urte baino gehiago neramatzan horrela. Bat-batean, jeneral bat etorri zen, eta arabieraz hitz egiten zidan; haiek ondo dakite arabieraz. Baimena zergatik nahi nuen galdetu zidan, eta Jerusalemera joan nahi nuela esan nion, enbaxadara joan eta elkarrizketa egiteko, eta gero Zisjordaniara itzuliko nintzela. Beste leihatila batera joateko esan zidan. Han ordu erdi itxaron nuen, paperak eskatu zizkidan eta hiru egunetan baimenaren bila joateko esan zidan. Esan zidan egunean itzuli nintzen, checkpointetik igaro, bulegoetara joan, eta baimena beste bulego batean zegoela esan zidan. Eta hor zegoen baimena. Poztu egin nintzen».*

Jerusalemera sartzeko baimena lortu ondoren, bisa hurbilago zegoen. Hala ere, ilara luzeak daude *checkpoint* bakoitza pasatzeko, eta orduak behar izaten dira batzuetan, asteko egunaren eta ordu-tartearen arabera; esate baterako, lehen orduan biltzen da jende gehien, lantegietara edo Israelen kontrolpeko lurraldeetako instantzietan hitzorduetara garaiz iristeko.

Palestinar guztiek Jerusalemen sartzeko jasan behar dituzten itxaronaldi luzeetako bat kontatu du Mohammedek.

«Jerusalemera joateko eguna heldu zenean, **checkpointera iritsi nintzen, eta ez zidaten sartzen uzten. Goizeko 5:00etatik 9:00etara zain geratu nintzen, eta sartzen utzi zidaten.** Elkarriketa Jerusalemen neukan, 10:30ean, eta elkarriketa egingo zidaten lekutik lau ordura nengoen. Taxi bat hartu eta AEBko kontsuletara eramateko eskatu nion gidariari. Taxilariak diru asko eskatzen zidan. Beherapena negoziatu nuen harekin, eta eraman egin ninduen. Bulegoetara iritsi nintzen, eta kontsulak elkarriketa egin zidan. Galderak egin zizkidan, eta esan zidan ez zidala bisa emango».

Palestinarrak gehien erabiltzen dituzten ihesbideetako bat AEBra migratzea da, eta, behin AEBko lurraldera iritsitakoan, nazioarteko babesa eskatzea. SODEPAZ GKEak, besteak beste Zisjordanian lan egiten duenak, osasun-baliabideetarako sarbidea errazten du eta honela azaldu dute egoera: «**Palestinako errefuxiatu gehienak AEBn, Italian, Txilen eta Latinoamerikako zenbait lekutan biltzen dira**». BADIL Palestinarren Bizileku-baimenerako eta Errefuxiatuen Eskubideetarako Baliabide Zentroak¹⁴ argitaratutako datuen arabera 2021ean, 500.000 palestinar bizi ziren Txilen; eta Hondurasen eta Estatu Batuetan zeuden hurrengo kopuru nabarmenenak.

Estatu Batuetara —senideak zituelako joan nahi zuen hara— joaterik ez zuela onartu ondoren, Mohammed beste aukera batzuk aztertzen hasi zen.

«Joan nahi nuela esan nion lagun bati, eta hark gauza horietaz arduratzen zen jendearekin jarri ninduen harremanetan. European sartzeko bisa egin zidaten. Niri berdin zidan nora joan. Lagun horrekin eta lehengusuarekin atera nintzen. Ez nuen inor ezagutzen European, baina nire lagunak jendea ezagutzen zuen Alemanian, Hanburgon, eta haiek lana zuten. Ni ere joango nintzela esan nien lagunari eta lehengusuari. Bisak asko balio izan zuen; ia 3.000 dolar, bisa egiteko, hegazkin-txartela erosteko, hotelera-ko eta abar, baina, hamar egunean, European sartzeko bisa eman zidaten».

Mohammeden familiaren egoera ekonomikoa ona zen, eta bera dirua aurrezten egon zen urteetan. Horri esker, ordaindu ahal izan zuen Alemaniara bide ez hain ortodoxoetan zehar joateko eskatu zioten dirua. Gainera, Mohammedek bazekien anai-arrebetan lehena zela Zisjordaniatik irteteko pausoa ematen; baina ez zen azkena izango, anaietako batek ahal bezain laster berarekin biltzeko asmoa baitzuen.

Berlinen lehen hilabeteak nolakoak izan ziren azaldu digu Mohammedek. Zenbait hilabete eman zituen hiri horretan.

«Alemanian babestuta sentitu nintzen, Berlinen bai, jende jatorra dago. Leku guztietako jendea dago han, eta nik ez dut arazorik hizkuntzekin. Paperak dira arazoa. Han,

14 2021eko datu-txostenetik ateratako informazioa. Hemen eskuratu daiteke: https://www.badil.org/cached_uploads/view/2022/05/19/map-pal-ref-worldwide-2022-en-1652945725.pdf

*paperik ez baduzu, ezin zara hizkuntza ikasteko eskolan sartu, eta oso zaila zen lana aurkitzea. Egunero joaten nintzen paperak egitera. Txartel bat eman zidaten; mundukoa naizela jartzen zuen, ez palestinarra, Asiako lekuren batetik nentorrela baizik. Kasu horretan, lanera zoazenean, papera eskatzen dizute, baina paper horrekin ez zidaten ikasten uzten. Orduan, doako eskola bat aurkitu nuen; hara joaten uzten zidaten, eta, gero, zaintzaile-lana aurkitu nuen, baina oso gutxi ordaintzen zidaten. Alemanian eta Belgikan ez da nazionalitate palestinarra aitortzen; hori dela eta, urte asko behar izaten dira paperak lortzeko, eta **nik ez dut nahi horrelako leku batean bizi, libre sentitzen banintzen ere espetxera joan nintekeelako paperik ez izateagatik**».*

Palestinako estatua aitortzea ez da huskeria bat, eta, Mohammedek azaldu duenez, ondorio larriak ditu, baita pertsonen bizitzarako ere. Europako herrialde guztiek ez dute Palestina herrialde gisa aitortzen, haietako batzuek Israelekin duten loturengatik eta harreman diplomatikoengatik.

Egoera erregularizatzeko zailtasuna dela eta, Mohammedek Espainiako estatua bidaiatzea gomendatu zion Europan berarekin elkartu nahi zuen anaiari, Espainiako estatuak beste baldintza batzuk ezartzen baititu; izan ere, Palestinako estatua aitortzen ez badu ere, estatus berezia onartua du.

«Anaia etorri zen lehenengo, eta etortzeko esan zidan. Aireportuan galdetu ziotenean, Palestinatik zetorrela esan zuen, eta indarkeriagatik, gerrengatik eta bizitza segurua ez delako irten zela handik. Handik astebetera, Bilbora eraman zuten. Autobus-txartela eman zioten, eta mapa bat, nora joan behar zuen jakin zezan. Eta Bilbora etorri zen, CEAREN programara, bizitza hemen hasteko, bizitzeko eta ikasteko, ikastaroak biltzeko eta abar. Alemaniatik etorri nintzen, eta nik ere asiloa eskatu ahal izan nuen».

Horrelaxe iritsi zen Mohammed Madrilera, 2017ko otsailaren 7an. Ondo gogoratzen du egun hori, Zisjordania utzi eta urtebete geroago bizitza aldatu zitzaiolako.

Espainiako Barne Ministerioak araututako eta protokolizatutako asilo-programa kudeatzen duten erakunde batzuek azaldu dutenez, espedientea izapidetzen hasi ondoren, lurraldeko hainbat tokitara bideratzen dira asilo-eskatzailleak, leku baikoitzean hutsik dauden plazen arabera. Mohammed eta bere anaia CEAREk kudeatzen duen etxebizitza batean elkartu ahal izan ziren.

«Hegazkinez iritsi nintzenean, bi polizia nituen atean zain. Bulegora eraman ninduten, hatz-marka hartzeko eta paperak sinatzeko. Ostean, Gurutze Gorriko mutil bat nire zain zegoen. Ingelesezt hitz egiten zidan, eta galdetu zidan ea Alemaniatik nentorren eta alemaniarra nintzen; palestinarra nintzela esan nion nik. Hotel baten helbidea eman zidan — 10 egunez gera nintekeen han —, eta metroko txartel bat. Gurutze Gorriak bulegoa du hotel horretan, eta han egin nituen izapidetak. Anaiarekin elkartzeko aukera izan arte Madrilén geratzeko esan zidaten. Handik egun gutxira, harekin elkartu nintzen».

Madriletik Bilbora joan ziren, beste mutiko batzuekin partekatutako pisu batera; haiek ere asilo-izaera onartzeko izapideak egiten ari ziren. Mohammedek programa zertan den eta nola bizi izan zuen azaldu digu.

«Hona iritsi nintzen, eta hizkuntza ikasten hasi nintzen. CEAREk gaztelania ikasteko eskolak ematen ditu. A1 eta A2 mailak egin nituen CEAREkin. Bilbon erroldatu ninduten, eta, hortaz, Lanbidera joan ahal izan nintzen informazio bila. Ikastaroen berri izan nuen; sukaldaritzari buruzko asko atera zitzaizkidan. Nire lehen dokumentazioarekin joan nintzenean, ez zidaten sukaldaritza-ikastaroa egiten utzi. Beste bat bilatu nuen, zurgintzari buruzkoa, 550 ordukoa. Orain arotza naiz; horretan jardun nuen Palestinan ere. Ikastaroa egin nuen, baina zaila zen lana aurkitzen. CEAREN, curriculumarekin egiten lagundu zidaten. Gizarte-langile batekin nengoen, eta pozik nengoen harekin, beti lagundu dit».

Egonaldia amaitu ondoren, eta egonaldi- eta lan-eskubidea aitortzen dion aldeko ebazpen juridikoa lortuta, Mohammed eta anaia Bilboko pisu batean bizi dira orain. Alokatzeko pisu bat aurkitzea ez da batere erraza izan haientzat, baina alokairu egonkorra lortu dute. Duela gutxi, Portugaletako jatetxe batean aurkitu du lana, eta, aldi berean, janaria banatzeko beste lan batean dihardu.

«Urtarrilean sartu ginen etxe horretan. Lagun bati esker lortu genuen. Askok lagundu digu neska horrek, inork ez dielako etxea atzeritarrei alokatu nahi. Otsailean, autonomo egin nintzen janari-banatzailerik gisa lan egiteko. 2019an, jatetxe batetik deitu zidaten 30 orduko lan baterako; beraz, bi lan ditut».

Mohammedi asko gustatzen zaio janaria prestatzea, eta plateren artean gertatzen den guztia ere bai. Berlinen nazioarteko sukaldaritza-topaketak egiten zituztela esan digu. Orain, Bilbon, sukaldaritza palestinarreko lokal bat irekitzeko asmotan dago.

«Nik beti partekatzen dut janaria. Lagunak nituen Alemanian, eta web-orri bat egin genuen, honela zioena: "Ongi etorri guztiak Berlinera", eta norbait iristen zenean eta ezer ez zekienean, guri eskatzen zigun laguntza. Igande eta ostegunetan geratzeko planak egiten genituen. Igandetan, sukaldaria zuten lokaletan janaria prestatzeko geratzen ginen. Bakoitzak bere herrialdeko janaria aurkezten zuen. Behin niri tokatu zitzaidan, eta platera prestatzeko laguntza eskatu nien, ikas zezaten. (...) Askok gustatzen zait janaria prestatzea, sukaldaritza palestinarreko jatetxe bat irekitzea gustatuko litzaidake».

Ez ditu ahaztu Zisjordania, Palestina eta **indarkeria**. Mohammedek, beste kide batzuekin batera, **aktiboki hartzen du parte egoera hori salatzen, ahaztu ez dadin**.

*«Beti deitzen didate taldeekin bilera egiteko, zer egingo dugun esateko, ea Palestinan zerbait egiteko ideiarik badugun. **Bizi nahi duen jendea gara, lan egin eta libre bizi nahi dugu**».*

3.4 NADIA NEMEH SHAMALY



Estereotipoak hausten dituen aktibista eusko-palestinarra

Nadia 43 urteko emakumea da eta Bermeon jaio zen, Bizkaian. Bera eta bere bi ahizpak kostaldeko herri horretan jaiozako familiako lehenengo belaunaldiko ki-deak dira. Gurasoak palestinarrak dira, baina 1967ko arabiarren eta israeldarren arteko bigarren gerraren ondorioz, familia leku seguruago batzuetara lekualdatu behar izan zen.

«Aita Ramallahkoa da, eta ama Belenetik hurbil dagoen Betchajud izeneko herrikoa. Han jaio ziren biak. 67ko gerran amaren familiak Jordaniara emigratu zuen, eta senitarteko batzuk bertan bizi dira. Aitaren familia osoa Palestinan geratu zen».

Familia bakoitza nolakoa zen kontatu digu Nadiak; izan ere, egoera ekonomikoari eta testuinguruari erreparatuta, oso desberdinak ziren. Aita landa-eremukoa zen jatorriz. Baserritarra zela diosku, guk hobeto uler dezagun.

«Amaren eta aitaren familiak guztiz desberdinak dira; aita herrixka batekoa zen, baserritarra edo. Horrelako jendeak lotura handia du bizilekuarekin eta ez dira bertatik mugitzen. Amaren familiak enpresan egiten zuen lan batez ere. Birraitonak enpresa elektriko bat izan zuen bere garaian, nahiko handia, Jordaniako gobernuarekin hitzarmenak baitzituen. Egoera ekonomiko onean zegoen. Aitaren aldekoen egoera bestelakoa zen. Baserritarrak ziren, lurra lantzea zuten ogibide, 12 anai-arreba ziren eta aitona hargina zen, besteak beste. Batzuen eta besteen munduek ez zuten zeri-kusirik. Horregatik, une horretan, batzuek ihes egitea erabaki zuten, eta besteek, berriz, bertan geratzea. Hala, 67ko gerran, amaren familia Jordaniara joan zen. Amak 10 urte zituen».

Nadiak azaldu duenez, aitaren eta amaren familia-giroak oso desberdinak ziren. Ama hirigunekoa zen, egoera ekonomiko onekoa. Aita, berriz, landa-eremukoa. Haren familia nekazaritzan aritzen zen eta aitona hargina ere bazen.

Hala ere, aldeak alde, eta aita ama baino 16 urte zaharragoa izan arren, bazuten ezaugarri komun bat: bien familiak katolikoak ziren, erlijioz eta kulturaz. Palestinan ere badago horrelakorik, nahiz eta gutxiengoa izan.

«Bai aitaren familia eta bai amarena kristauak ziren. Kristau bat eta musulman bat ezin dira ezkondu. Kristauak bere fedea baztertu behar du, eta islamera aldatu, beste la debekatuta dago ezkontzea. Musulman bihurtu ondoren ezin zara erlijio horretatik atera. Kristau batek uko egin diezaioke bere erlijioari, baina islamean ezin da halakorik egin, eta musulman bat ezin da beste erlijioaren bat duen inorekin ezkondu. Bietako bat musulmana izan balitz, besteak erlijioa aldatuko zukeen ezkondu ahal izateko. Aitaren familia nahiko kristaua zen. Osaba apaiza zen, seminario batean egondakoa,

baina ikasi ahal izateko egin zuen, halaberharrez; izan ere, komunista eta sozialista samarra zen. Ama aita baino sinestunagoa zen, baina denborarekin fedea galdu du».

Nadiak behin baino gehiagotan aipatu du etxean betidanik izan duten ikasteko giroa. Hain zuzen ere, aitaren unibertsitate-ikasketak izan ziren jauzi geografiko garrantzitsu hura emateko arrazoia.

«Orain Erasmus esaten dioguna egitera etorri zen aita hona. Hitzarmen baten bidez, Iruñera etorri zen Medikuntza ikastera. Psikiatriako espezialitatea ikasi zuen ondoren, eta Bermeoko ospitalean bekadun gisa sartzeko aukera baliatu zuen».

Behin Bermeon finkatuta, Nadiaren aita familia bat osatu nahi izan zuen.

«Aitak palestinar batekin ezkondu nahi zuen. Itzuli egin zen, eta ez dizut esango tratatu bat izan zenik, baina tira, uda batean elkar ezagutu eta ezkondu egin ziren. Ezagun baten bidez elkartu ziren, eta hona ekarri zuen emaztea. Duela 45 urte etorri ziren bertara bizitzera. Ama oso gazte zela etorri zen, 17 urterekin, eta 18 zituela jaio nintzen ni. Jordaniako hiriburutik herri nahiko euskaldun batera etorri zen. Garai hartan, 78an, Bermeon ez zegoen etorkinik, eta atentzioa ematen zuen».

Nadiak argi du ama eta aita izan zirela Bermeora etorri ziren lehenengo atzerritarak. Gainera, oraindik ere Francoren diktadurapean bizi zen gizarte batera iritsi ziren. Amak, 17 urterekin, arabiera, ingelesa eta frantsesa zekizkien, eta euskaraz bizi zen herri batera etorri zen. Nadiak gogoan du hizkuntza- eta kultura-desberdintasuna izugarria izan zela harentzat.



© Argazkilari ezezaguna / UNRWaren artxiboak

«Ama oso gazte zela etorri zen, 17 urterekin, eta 18 urte zituela jaio nintzen ni. Gaztetxo zela iritsi zen Bermeora, herri txiki batera, ez zuen bertako hizkuntza ezagutzen eta aldaketa kulturala ikaragarria izan zen. Nahiko gaizki pasatu zuen. Garai hartan herrian ez zegoen etorkinik, eta atentzioa ematen zuen. 1978. urtea zen, Bermeon. Jordaniako hiriburutik zetorren, Ammanetik. Amarentzat oso zaila izan zen, eta ez herrian ez zutelako maite. Arrazakeria eta hori guztia askoz beranduago etorri da. Gu asko maite izan gaituzte, eta izugarri lagundu digute. Aita ondo ikusia zegoen, medikua zen eta horrek ospea ematen zuen. Jendeak ez zuen ulertzen Palestina zer zen. Haientzat kanpotik etorritako jendea ziren, hizkuntza arraro batean mintzo zirenak, besterik ez, eta maite gintuzten».

Eta maitasun hori agerikoa zen bizilagunek amarekin, alabekin eta aitarekin zuten harremanean.

«Ama oso babestuta egon zen Bermeon. Beheko bizilaguna lapikoekin joaten zitzaion etxera, marmitakoa elkarrekin egiteko, eta horrela ikasi zuen hori prestatzen. Agian, hiri handi batean ez luke horrelako laguntasunik izango, Bilbon, adibidez. Herri batek babesa ematen dizu, eta inbaditu ere egin zaitzake. Beharbada zuk ez duzu gogorik, baina bizilagunak etxeko txirrina jotzen du eta ezin diozu ezetzik esan; zure sukaldean marmitakoa egiten hasten da eta zu berarekin, eta orain dela 40 urte are gehiago».

Nadiak dioenez, bata bestearengandik ikasten zuen, eta alderantziz. Etxean marmitakoa egiten ikasi zuten, eta baita euskaraz mintzatzen ere, eta bizilagunek eta herritarrek, orokorrean, Palestina ezagutu zuten, herri horren kokapena eta kultura-nortasuna.

«Inguruko jendeak bazekien palestinarrak ginela, baina ez zekien herrialdea non zegoen, gaia ezezaguna zen haientzat. Ni apur bat astuna izaten nintzen erlijio-eskole-tan, Jesus palestinarra edo judua ote zen eztabaidatzen nuen irakaslearekin. Oro har, ez zekiten herrialdea kokatzen, baina hari buruz zerbait bazekiten».

Nadia urtero joaten zen udan Jordaniara senitartekoak bisitatzeraz, eta harreman oso estua landu zuen amaren zein aitaren familiekin eta baita Palestinaren kausarekin ere.

«Amak ikasketak bukatu nahi zituenez Jordaniara itzuli zen nik urtebete nuenean. Nik bi urte bete arte egon ginen han ama eta biok, 18 urtera arteko ikasketak burutu zitzan, etorkizunean unibertsitatera joateko asmoarekin. Aita joan-etorrian ibiltzen zen, ahal zuenean. Ordutik aurrera askotan joan gara, batez ere txikiak ginenean, ia uda guztietan, edo batean bai eta hurrengoan ez, txandaka».

«Ni eusko-palestinarra naiz, edo palestinarr euskalduna, nahi duzuna, nahi duzun ordenan, ni biak naizelako, % 50 palestinarra eta % 50 euskalduna. Oso-oso euskalduna naiz, jaiotzez eta gogoz ere bai, Euskal Herria maite dut. Nire odola % 100 palestinarra

da, eta hori horrela izango da beti. Ahal dudan neurrian eta hil arte borrokatuko dut Palestinaren alde».

Bihotzean daraman bere beste lurraldearen eskubideen aldeko konpromisoari helduz, Nadia Palestinara joan da hainbat udatan GKE-ekin lan egitera. Hala, giza ezkutu eta itzultzaile izan da, eta bestelako lanak egin ditu.

«2003an kooperante gisa joan nintzen, giza ezkutu izateko eta itzultzaile lanak egiteko GKE-entzat eta komunikabideentzat. Erasoren bat gertatzen zenean, hara joaten nintzen haiekin batera kotxean. Palestina osoan zehar ibili nintzen. Gazan, Hebronan, Nabluseraino igo ginen... Zisjordania osoan eta gero Gazan».

«24 urterekin joan nintzen; oso gogorra izan zen. Laguntzeko gogo biziz joan nintzen, eta ez naiz egindako ezertaz ere damutzen, baina egia da arrisku bizian egon nintze-la, eta atxilotu ere egin ninduten. Borroka barrutik bizi izan nuen, gertatzen ari dena ikusten duzunean odolak bor-bor egiten baitu. Une nahiko latzak izan ziren. Erasoal-dietako bat gertatu zenean ikastetxe batean geunden. Gerraren ondorioz arazoak zituzten haurrak eramaten zituzten bertara: gorrieria zutenak, aurpegian zauriak zituztenak, gorputz-adarrak moztuta zituztenak... batez ere erredurak zituzten, eta batzukitsuak ziren. Eskolak ematen ari ginen egun batean bonbardaketak hasi ziren eta haurrak besoetan hartuta korrika irten behar izan genuen. Ikastetxearen zati bat behera etorri zen. Zauritu asko izan ziren, baina hildakorik ez. Nik 23 urte nituen, irakasleak 19 eta haurren artean zaharrenak 6 edo 7 urte».

Okupazioak jendea nola izutzen duen eta indarkeriak Palestinako gizarte zibilean duen eragina kontatu digu Nadiak.

«Jendea oso urduri dago, korrika dabil, zaratak entzuten dira. Oro har, adi-adi zoaz, zerbait gerta litekeelako, are gehiago albisteak gori-gori daudenean lekuren batean zerbait gertatu delako. Badakizu errepresaliak izango direla, baina ez dakizu non eta nola gertatuko den. Martiriren bat edo bere burua erretzera zihoan pertsonaren bat harrapatzen dutenean, biharamunean hura bizi zen eraikin osoa eraisten dute, bizilagunen etxeak barne, inongo beldurrik eta lotsarik gabe. Beraz, une oro erne zaude, zer gerta daitekeen pentsatzen etengabe».

Izan ere, **buruko osasuneko arazoren bat duten pertsonen tasarik handienetako bat du Palestinak**. Gaitz ohikoenak antsietatea, trauma osteko estresa eta depresioa dira. Hala, Lankidetzarako Espainiako Agentziak diseinatutako Ekintza Humanitarioko estrategiaren¹⁵ barruan hainbat ekintza prestatu dira gaixotasun horien eragina leuntzeko. «Buruko nahasmendua izateko arriskua areagotu egin da COVID-19aren pandemiaren ondorioz, Zisjordanian indarkeria gogortu delako eta

15 2022-2023rako Estrategia Humanitaria, Palestina. Hemen eskura daiteke: <https://www.aecid.es/Centro-Documentacion/Documentos/Acci%C3%B3n%20Humanitaria/Palestina%20V5.pdf>

Gazako gerra-egoera larriagotu egin delako. Horrenbestez, Gazako nerabeen % 82k uste du ongizate psikosozial baxua edo oso baxua duela, eta pandemian zehar suizidio-ahaleginak laukoiztu egin ziren, batez ere emakume gazteen artean. Indarkeria —atxiloketak barne— pairatzen duten adingabeak bereziki zaurgarriak dira, eta horiekin batera baita lekualdatutako pertsonak eta genero-indarkeriatik bizirik irten diren emakumeak ere».

Kaleetan eta etxe barruan egunero bizi duten tentsioak ondorio larriak eragiten ditu buruko osasunean, baina horrez gain, armadak ezarritako derrigorrezko kontrolguneak igaro behar izaten dituzte palestinarrek. Horietako batzuek kokapen finkoa dute eta jendeak ezagutzen ditu, baina leku batzuetan aurrez abisatu gabe jar dezakete kontrolgune mugikor horietakoren bat, eta bertatik igaro behar diren biztanleek ilara luzeak egin behar izaten dituzte.

«Kontrolguneetakoa beste une beldugarri bat da. Horietako batean atxilotu ninduten. Nabluseko kontrolgunean izan zen. Bertatik pasatzera gindoazela beste kontrol bat jarri zuten. Tenperatura 40 gradukoa zen goizeko 10:00etan, eta jende mordo zegoen gune hori gurutzatzeko, medikuarenera edo beste nonbaitera joan behar zutelako. Ni atzerritar gisa nengoen han, eta gure ilara askoz azkarragoa zen. Militarrei esan nien bero handia zegoela eta ilaran zain zegoen jendeari pasatzen uzteko, edo behintzat ura eman diezaietela. Haiek esaten zuten: txakur horiei? Ez urik, ez ezer. Elkartearen anbulantzia eskatuko nuela esan nien, jendea hidratatzera etor zedin. 80 urteko emakume bat ere zutik zegoen ilaran. Anbulantziari deituko niola egin nien mehatxu. Orduan, ni zigortzeko, harrapatu eta kontrolgunearen ondoan paratu ninduten, begiak estalita, brida batzuekin lotu ninduten eta birak emanarazi. Amaiezina



© Argazkilari ezezaguna / UNRWaren artxiboak

iruditu zitzaidan. Hiru orduz bakarrik egon nintzen horrela. Egun batzuk eman nituen ongi ibili ezinik, briden markak urteetan izan ditut, baina anbulantzia ekarri genuen!».

Nadia hunkitu egiten da bizi izan zuen indarkeria gogoratzean. Okupazioaren ondorioak salatu eta ezagutzea eman behar direla azpimarratzen du behin eta berriro. Egun, aktibismoa eta banku batean egiten duen lana uztartzen ditu.

«Hitzaldi ugari eman ditut, era guztietakoak eta eskatu didaten lekuetan. Txokoetan, alderdi politikoen egoitzetan, ikastetxeetan... Palestinaren gaia interesatzen zaion norbait dagoen tokian. Jendeak entzutea, zerbait barneratzea, eta gero beste pertsona batzuei konta diezaietela, hori da kontua.

Eragin politikoan diharduen emakume aktibista denez, jende askoren aurreiritziak hautsi dituela dio, pentsakor. Hemengo gizonek exotikotzat jotzen dutela sentitzen du, eta hori pertsona gauza bihurtzeko modu bat dela; aktibismoan kide dituen gizon palestinarrek, berriz, errespetatu egiten dutela uste du.

«Hemen bitxikeriatzat naukate, exotikotzat. Ez da gauza bera emakume palestinarra eta gizon palestinarra izatea. Hemen, gizon palestinarra beharrean emakume palestinarra izatea mesedegarria izan da niretzat, hori uste dut. Emakume “moroak” badu alderdi exotiko bat, dantza dela-eta, nolabaiteko kutsu misterioetsua, eta gizona, berriz, bigarren mailako pertsona da, bertakoei ogia kentzera datorrena. Ni beti ongi tratatu naute. Mutil palestinarrentzat desberdina naiz, nik ezagutzen ditudanak musulmanak baitira, eta ni kristaua. Nire izaera irekiaren arrazoia musulmana ez izatea dela pentsatuko dute. Erabat errespetatzen nautela sentitzen dut. Horrela jantzita ikusten nautenean ea kristaua naizen galdetzen didate, eta nik erantzuten diet ateoak naizela kristaua baino gehiago. Haien ondoan borrokan ikusten zaituztenean, ekin-tza horrekiko errespetua guztiaren gainetik dago».

Palestinan bizi den familiaren aurreiritziei eta arauiei ere egin behar izan die aurre, are gehiago dibortziazteko erabakia hartu zuen emakumea izanik. Erabaki hori ez zuten begi onez ikusi, batez ere aitaren aldeko senitartekoek.

*«Dibortzioa eskandalua izan zen. Bikotekide ohia bermeotarra da. **Dibortziaztea erabaki nuen kontua ez zihoalako ongi. Eskandalua izan zen, batez ere aitaren aldeko familian, tradizionalagoa baita, nolabait esateko. Amaren babesa izan nuen**, nire erabakia onartzen du. Harentzat garrantzitsuena da gu ondo egotea eta zintzoak izatea. Aitak ez dakit nola hartuko zukeen berria. Nahiko irekia eta feminista bazen ere, agian bere familiaren pentsaeraren alde egingo zukeen. Hura hil ondoren zalantza horrekin geratu naiz. Beharbada, gurean guztiak emakumeak ginelako harrotu zen haren familia, eta deitu egin ziguten erabakia ez zutela begi onez ikusten esateko. Guk argi adierazi genien **informazioa ematen ari ginela, ez baimena eskatzen**. Pentsatzen dut amamari ez diola graziazirik egingo nire dibortzioak eta horrek guztiak, baina maitasunez eta errespetuz tratatu gaitu beti. Gu aske hezi gaituzte, eta*

niretzat penagarria izan da, baina ez erabaki hori aldatu edo ezkutatzeko beste. Ama-ri esan nion, nahi bazuen nire erabakia ezkutatzeko, baina berak ez zuen uste zerbait txarra zenik, ezkutatu beharreko zerbait».

Gertatutakoa onartu ondoren, bi familien arteko harremana ona dela dio Nadiak, elkarrengandik urruti badaude ere. Distantzia hori laburtu egiten da zenbaitetan, lehengusinak Bermeora bisitan datozenean. Kalera irten eta euskal kultura partekatzen du haiekin.

«Lehengusinak hona etorri izan direnean parrandan ibili gara, kalimotxoa edan dugu, turismoa egin dugu... primeran pasatu dute, baina udara batez, gero hara joan eta betikora itzultzeko. Okupazioa dela-eta aske izateko aukera handirik eskaintzen ez di-zun gizartean bizitzea zaila da, ez baitakizu zure askatasuna noraino irits daitekeen. Hala ere, aldaketak ikusten ditugu. Lehengusinek lan egiten dute, ikasi egin dute, eta orain neska-mutilez osatutako taldeetan irteten hasi dira. Emakumeen arazoak bigar-rren mailakoak izan dira beti, gure beharrak geureak bakarrik direnez, historian zehar alde batera utzi dira».

3.5 KAMAL UBEID

Kamal 1997an jaio zen Baddawin, Libanon dauden errefuxiatuentzako 12 kanpa-mentuetako batean. Haren familia Palestina iparraldekoa da, bai amaren aldetik eta bai aitarenetik. 1948an Israelek Palestinako estatuaren aurka egindako erasoar-ren ondorioz, inguruneke biztanleei babes emateko **prestatutako kanpamen-tuetara joan behar** izan zuten.

*«1948an, lehenengo gerrarekin, **palestinarr asko Libanora joan ziren**. Aitona-amonak 15 edo 16 urterekin joan ziren errefuxiatu-eremuetara. Aldi baterako kontua izan-go zela esan zieten, 7 edo 8 egunen buruan etxera itzuliko zirela, eta begira, 74 urte igaro dira jada».*

Gerrak bakean bizi nahi zuten **milaka pertsonaren exodoa** ekarri zuen. Kama-lek kontatu digunez, ihesaldi horretan amaren aldeko aitona-amonak Nahr el-Ba-red kanpamentuan kokatu ziren, Tripolitik 16 kilometrora, kostaldeko errepideak zeharkatzen duen gunean.

UNRWAn jasotako erreferentziek diotenez, kanpamentu hori 1949an prestatu zuen Gurutze Gorriaren Sozietateen Ligak, Huleh lakuaren inguruko Palestinako errefuxiatuak hartzeko. Hau da, hasieran, Palestina iparraldeko nekazaritza-gune-ko biztanleentzako babeslekua izan zen.

Aitaren aldeko aitona-amonak, berriz, Baddawi kanpamentuan kokatu ziren. Ber-tan jaio ziren Kamalen aita, eta gerora Kamal bera, hiru arrebak eta bi anaiak.

Hala, kanpoko laguntza euskarri zuten inprobisatutako babesleku horiek etxe bihurtu ziren, eta bertan jaio ziren Kamalen gurasoak.

«Errefuxiatu-eremuetako jendearen artean banatzen zuten Europako laguntzari esker biziraun zuten aitona-amonek hasieran».

Kanpamentuko lehenengo urteak gogorak izan ziren. Kanpin dendetan bizi ziren, eta UNRWA sortu berriak kudeatzen zuen nazioarteko laguntza zuten bizibide.

Geroago, kanpdendekin hasitako kanpamentuetako azpiegiturak hobetzen joan ziren —hein batean—, eta Kamalek ezagutu dituen errefuxiatu-eremuak izatera iritsi ziren.

«Errefuxiatu-eremuak UNRWArekin laguntzaren mende daude erabat, agentziak eramaten ditu hornigaiak, gero guk lantzen ditugunak. Are gehiago, UNRWAk ematen du gure identifikazioa, agentziak berak erregistratzen gaitu. Etxebizitzak, lehen plastikan ez zirela etxolak-edo ziren, orain plastikoz eta egurrez eraikitzen dituzte».

Poliki-poliki, eta luzatzen ari zen gatazkaren ondorioz, eskolak eta osasun-zentroak eraiki zituzten. Kamalek dioskunez, **zaila da errefuxiatu-eremuetatik irte-tea**, Libanoko poliziak **mugimendu-murrizketak eta -kontrolak ezarri** baititu, eremuaren barnealdean zein kanpoaldean.

Agintari libanoarrek ezarritako kontrola ez da estatikoa, arauak eta errefuxiatuen-tzak baimenak aldakorak izaten dira. Gurasoak gazte zirela, eta bakoitza kanpamentu batean bizi zela, irteteko baimen gutxiago ematen zutela azaldu digu Kamalek. Zirkulazio askea galarazten duten kontrolekin, nola ezagutu zuten elkar



Libano. © Argazkilari ezezaguna / UNRWArekin artxiboak

aitak eta amak? Izan ere, hurbil egon arren kanpamentu banatan bizi ziren, eta sartzeko eta irteteko aukerak murriztak ziren.

«Ama erosketaren bat egitera irteten zen eta aita haren bila joaten zen, adibidez. Ez zegoen telefonorik, jakina, eta elkarren bila ibiltzen ziren; elkartu eta hitz egiten egoten ziren. Aita ere joaten zen amaren eremura bisitan. Ezkontzeko proposamena egitera joan ziren aitona-amonak ere, eta amak pentsatzeko tarte hartu zuen. Birtartean, amaren senitartekoek aitaren inguruan bizi ziren familiei galdetu zieten mutilari eta haren familiari buruz. Lehen horrela egiten zen. Gero bi familiak kafe baten inguruan elkartzen ziren, bikotea ezkondu artean. Mendiko bideetatik ibiltzen ginen kanpamentuetatik isilka sartu eta irteteko».

Kanpamentuetan bizi zirenen artean ohikoa zen jokabideetako bat azaldu digu Kamalek: emakumeak, ezkondu ondoren, gizonak bizi ziren kanpamentuetara joaten ziren, haiekin eta haien familiekin bizitzera.

«Emakumea bere familatik ateratzen da senarraren sendiarekin joateko. Nire amak bere familia utzi zuen eta aitarenarekin joan zen, Baddawira, hala da».

Beraz, emakumeak odoleko familatik bereizita egoten ziren, eta are gehiago mugitzeko eragozpenen ondorioz.

Ama Baddawira bizitzera joan ondoren etxean nola antolatzen ziren kontatu digu Kamalek. Batetik, amak Kamal bera, bi anaia nagusiak eta hiru arrebak zaintzen zituen —horietako bi bikiak eta Kamal baino gazteagoak—.

«Hiru mutil eta hiru neska gara, mutiletan gazteena naiz ni, eta ondoren arreba bikiak jaio ziren».

Aita, berriz, etxetik kanpo lan egiten saiatzen zen, diru apur bat irabaztearren. Bizi-baldintzak gogorrek dira kanpamentuan, eta bizimodua aurrera ateratzea erronka handia da, Libanoko gobernuak ezarritako murrizketak direla eta.

Batetik, gizon errefuxiatuek egin ditzaketen **lan-jarduerak mugatuak** dira, eta arau horiek are zorrotzagoak eta murriztaileagoak dira emakumeen kasuan, haiek egin ditzaketen lan-jarduerari dagokienez.

Gizonek ezin dituzte lanpostu jakin batzuk bete, oro har osperik onena eta ongien ordainduta daudenak. Beraz, irtenbide bakarra **lanbide prekarioei** heltzea izaten da, **soldata-baldintza okerrenak dituzten sasoi jakin baterako lanpostuei**, alegia.

«Aitak aldi baterako lanpostuak izaten zituen, hala nola nekazaritzan, obretako elektrikari-lanak egiten zituen eta zaborra garbitzen zuen. Garai batean libanoar batekin egin zuen lan, merkatu beltzean. Haiekin harreman ona baduzu, lana eman diezazu-

kete. Libanoar harekin egin zuen lan aldi batez, jendeari ura ematen. Gero okindegi txiki bat ireki zuen. Hor hasi nintzen ni ere lanean. Nekazaritza-guneetako jendeari eta kanpokoei saltzen genien ogia, kanpokoak kanpamenduetan sar daitezkeelako, baimenekin».

Libanon, joan-etorriak askatasunez egiteko baimenak ez dira berdinak errefuxiatu eremuaren barruan bizi direnentzat eta kanpoan bizi direnentzat.

*«Libanoko agintarien arabera errefuxiatuek ezin dute lanik egin, eta modu horretan ez diete paperik ematen; izan ere, paperak dituenak bidaiatu egin dezake, eta hori ez zaie interesatzen. **Ez digute paperik ematen, ez pasaporterik, ez dugu lanerako baimenik. 74 urte daramatzagu horrela.** UNRWAK txartel urdin bat ematen digu, errefuxiatu-eremu batekoak garela dioena, eta baita txartel gorri bat ere, eremutik irteten bagara erakutsi beharrekoa, baina ez dugu baimenik eremutik kanpo lan egi-teko».*

«Libanoko poliziaz gain, errefuxiatuen eremu barruan gertatzen dena kontrolatzen duen jendea ere badago».

74 urte aldi baterako sortu zen eremu batean, behin eta berriro luzatzen doan iraungitze-data duen lekuan. Kamalek azaltzen duenez, Beddawiko kanpamentua «Libanoko txikiena da, hiri txiki baten antzekoa. Eskola asko dago, osasun-zentroa ere, baina ospitalerik ez. Inork ospitalera joan beharra badu errefuxiatu-eremutik kanpo eraman behar dute, baina hori oso garestia da. Baten batek gaixotasun larriren bat badu, eremu barruan ez dago harentzako inolako zerbitzurik, kanpora eraman behar dute eta diru beltzean ordaindu; libanoar batekin ados jarri, hari ordaindu eta ospitalera eramaten zaitu».

Libano da muturreko pobrezian bizi diren errefuxiatu palestinarren ehunekorik handiena duen UNRWaren lan-eremuetako bat. Beddawiko errefuxiatu-eremuan ia 16.600 lagun bizi dira. Pobrezia eta jende pilaketak dira arazo nagusienak, herrialde horretan dauden gainerako errefuxiatu-eremuetan bezala.

Azken urteotako gatazka armatuek muturreraino eraman dute egoera larria. Kamalek eta haren familiak zenbait gerra bizi izan dituzte.

«1982an Sabra eta Shatilako sarraskia izan zen. Itsasotik hurbil zegoen errefuxiatu-eremua suntsitu zuten, Siriarekin harreman handia zuen eta ez zuten horrelakorik nahi. Amaren familia hangoa da. Jende asko hil zuten, beste batzuek beste eremu batzuetara alde egiteko aukera izan zuten».

«2006an Libanoren eta Israelen arteko gerra piztu zen, eta han nengoen ni. Bonbak jaurtitzen zituzten eremuetara. Amaren familia bizi zen kanpamentua suntsitu egin zuten, jende asko hil zen. Amaren familiak ihes egitea lortu zuen eta Beddawira etorri zen bizitzera».

Kamalek 9 urte zituen gerra horretatik bizirik atera zenean. 34 egunez bonbardaketak etengabeak izan ziren. Egun luze horietan urrutira bidaiatzearekin egiten

zuen amets. Txikitan ere, Internetarako konexio kaskar baten bidez munduko es-
kualdeei buruzko informazioa bilatzen zuela kontatu digu.

«2006an ez geneukan tunelik, eta ez zegoen aukera handirik eremutik ateratzeko. Nik Internet bidez ikusten nuen kanpoan zer gertatzen zen. Filmetan eta horrelakoetan ikusten genuen».

Kamalek bizimodu hobea nahi zuen, eta bazekien horretarako eremutik atera beharko zuela. Familiari bere nahia jakinarazi zion. Hala, dirua aurreztuz joan ziren eta zituzten ondasun apurrak saldu zituzten. Bien bitartean, irteteko moduari bu-
ruzko informazioa bilatu zuten, legalki alde egitea ezinezkoa baitzen.

*«Europara bidaiatu nahi nuela esan nion familiari, horixe bera egin zuen jendea eza-
gutzen nuen, ez nintzen beldur. Alde egin nahi nuela esan nuenetik benetan joan nin-
tzen arte urtebete edo bi egon ginen aurretzen. Han ezinezkoa da asko aurrezte, ez
baitago lanik. Gutxika-gutxika dirua bilduz joan ginen eta familiaren urrezko kateren
bat ere saldu genuen».*

Familia osoak hartu zuen parte aurrezteko lan horretan, eta, aldi berean, pasapor-
terik eduki gabe hegazkinean bidaiatzeko modua erakutsiko zien norbaiti buruz-
ko informazioa bilatu zuten. Europako herrialderen batera bidaiatzea zen Kamalen
asmoa, baina azkenean hegazkinez Ekuadorrera joateko bidaia adostu zuen. Ho-
rra azaldu du Kamalek prozesua:

*«Eremutik kanpoko pertsona bat ezagutzen duzu, libanoar bat, eta hark ematen dizu
diruaren truke pasatzen utziko dizun aireportuko langileren bati buruzko informa-
zioa. Aireportuan 13 palestinar geunden, horietako bat nire errefuxiatu-eremukoa.
Bakoitza Latinoamerikako herrialde batera joan ginen».*

Kamal 21 urterekin irten zen Beddawitik beste kontinente batera joateko, eta ez
zuen hango hizkuntzarik ezagutzen, ez ohiturarik, ez zuen bertako kultura anitzen
berririk. 5 hilabete eman zituen Latinoamerikako herrialde batetik bestera, familia-
ren aurrezkiekin aurrera egiten eta han eta hemen lan eginez.

Europara iristeko helburuari eusten zion, eta ahal izan zuenean Madrilera he-
gazkina hartu zuen, bertan asiloa eskatzeko.

*«Latinoamerikan nengoela banekien Europara joan nahi nuela, eta asilo politikoa es-
katzeko asmoa nuen, ezagutzen bainituen horixe bera egin zuten beste batzuk».*

Madrilera iritsita, nazioarteko babesa eskatzen dutenek egin ohi duten ibilbideari
ekin zion Kamalek.

*«Madrilera iritsi nintzenean Gurutze Gorriko pertsona batek hartu ninduen. Arabie-
raz mintzo ziren. Galdera asko egin zizkidaten, nondik nentorren, zergatik... UNRWAK
kudeatzen duen errefuxiatu-eremutik nentorrenez han zuten niri buruzko informazio
guztia».*

Barajasen egin zioten lehenengo galdeketaren ondoren, Kamal Madrilgo hotel batera eraman zuten, eta azkenean, Barne Ministerioaren nazioarteko babeserako programaren barruan Gurutze Gorriak kudeatzen duen pisu batean kokatu zuten, Araban.

«Madrilen eta Bartzelonan lagunak nituen, baina Gasteizen eman zidaten pisuko plaza, eta hona etorri nintzen, ezin duzu aukeratu. Programak 18 hilabete irauten ditu. Lehenengo sei hilabeteetan ezin da lanik egin, hizkuntza ikasteko eta beste kontu batzuetarako epea da. Gaztelania ikasteko zenbait ikastaro egin nituen, baita bilte-giratze-, gozogintza- eta okintza-ikastaroak ere. Arlo horretan esperientzia banuen, kanpamentuan aitarekin okindegian lanean ibilia nintzelako.

Kamalek dioenez, 18 hilabete horiek azkar igarotzen dira, eta *«laguntzen dizuten arren, zuk zeuk atera behar duzu bizimodua aurrera»*.

Programa hori 2019aren bukaeran amaitu zen, COVID-19aren munduko pandemia hasi baino hilabete batzuk lehenago.

Gasteizen bizitzen nola sentitzen den galdetu diogu, zailtasunik izan ote duen lana aurkitzeko, pisua alokatzeko, lagunak egiteko edo lagun-talderen batean integratzeko.

«Badira 3 urte okindegi batean lanean ari naizela, gaueko txandan, eta kontratu mugagabea egin didate. Ohituta nago txanda horretan lan egiten, kanpamentuan ere hala aritzen bainintzen. Bi urte badira neure kontura bizi naizela, etxe partekatu batean. Batzuetan lankideekin irteten naiz bazkaltzera joateko, parrandara... asko lagundu naute. Gurutze Gorriko jendearekin ere badut harremana, batzuetan topo egiten dugu eta hitz egiten egoten gara».

Kamalek hanka igeltsatuta du eta hilabete batzuk daramatza bajaran. Pozik eta harro dago lortutako guztiaz eta familiari laguntzeko aukera duelako. Hilero dirua aurreztu eta Beddawira bidaltzen die senitartekoei, oraindik ere kanpamentu horretan bizi baitira, handik irteteko itxaropen handirik gabe. Haiek Gasteizera etortzea nahiko luke berak, baina familiak leku bakar batera joan nahi du, Palestinara. Jatorri duten herria ezagutu nahi dute, behinola bertatik kanporatu baitzituzten.

«Gurasoak adinekoak dira, eta Palestinara besterik ez dute joan nahi, Palestina ezagutu nahi dute, baina ez diete sartzen uzten».

Kamal baikorra da, eta pozik dago Euskadin lortutakoarekin, nazioarteko babes-programan parte hartzeak ekarri dion aukerarekin. Hala ere, Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerra betean, gogoeta egiten du, eta gatazka baten eta bestearen aurrean emandako erantzun humanitarioa ez dela inolaz ere berdina izan salatu du. Berak dioenez, *«elkartasunak ez du begien kolorea edo hurbiltasuna kontuan hartu behar, pertsonak baizik»*.

4. ONDORIOAK

4.1. ABIAPUNTUKO EGOERAK

Argitalpen honek jaso dituen bost bizitza-istorioek **Palestinako herritarren errealitatea** eta pairatzen dituzten **bizi-baldintza** zailetara hurbiltzen gaituzte. Palestinarrek Zisjordanian bizi duten mugimendu-askatasunaren muturreko murrizketari buruz hitz egin dute Nadia Nemeh Shamalyk, Mohammed Farajallah-k eta Mohamed Laymonek, eta egoera horrek biztanleen bizimoduan duen eragin suntsitzailea azaldu dute. Mohammed Abu_Jbarak, berriz, Gazako zerrendan herritarrek pairatzen duten blokeo-egoeraren eta etengabeko erasoen ondorioak erakutsi dizkigu. Kamal Ubeidi esker jakin dugu Libanon bizi diren Palestinako errefuxiatuek nola egiten dieten aurre pobrezia eta murrizketei; izan ere, lan egiteko aukerak, jabetza eta, batzuetan, joan-etorriak ere mugatuak dira haientzat.

Elkarriketatuek (edo haien familiek) migratzeko bidaiari ekiteko izan zituzten arazoak alde batera utzita, bizimodua aldatu izanaren gaia aipatu dute guztiek, eta seguruago eta beldurrik gabe bizitzen hasteko izan duten aukerari buruz mintzatu zaizkigu. Badirudi bizimodu-aldaketa hori inflexio-puntu oso garrantzitsua izan dela haien bizitzetan, nahiz eta askok itzultzeko gogoari eusten dioten, jatorrizko etxeetan bakean bizi ahal izateko.

4.2. EUSKADIN KOKATZEKO PROZESUA

Euskadin izan duten **harrerari** dagokionez, elkarriketatutako lau gizonek adierazi dute onartuak sentitzen direla euren burua palestinarr gisa edo jatorri palestinarraren pertsona gisa aurkezten dutenean, baina oniritzi hori eta elkartasuna ez dira nahikoa harreman sakonagoak sortzeko eta nolabaiteko adiskidetasuna edo bestelako harreman-motaren bat lantzeko. Nadiaren kasuan pertzepzioa bestelakoa da, Euskadin jaio baitzen, eta beraz, lotura eta sare egonkorrak ditu. Bizitzan zehar aurrera eraman duen palestinarraren eskubideen aldeko aktibismoak Bermeo jaio-terrian ere nolabaiteko eragina izan duela azaldu du.

Palestinatik Euskadira etorri direnen arteko adiskidetasun-loturak beste leku batzuetatik iritsi diren pertsonen artera zabaldu dira. Era berean, elkarriketatuek beste herrialde batzuetan egin dituzten lagunak ere haien harreman-sarean dau-

de, eta horrek indartu egiten du egungo bizimodutik haratago zabaltzen den adiskidetasunaren kontzeptua.

Ez dute uste Euskadin jaiotako pertsonekin adiskidetasuna lantzeko zailtasuna arrazakeriaren ondorio zuzena denik. Nolanahi ere, arrazakeria nabaritzen dute, argi eta garbi, eta, beraz, **diskriminazioa** ere bai, **gizarte-eskubideen** eskuragarritasunarekin lotutako beste arlo batzuetan, egoitza-kontuetan, adibidez. Horixe da, hain zuzen, Euskadira etorritako gazte palestinarrek aurrean izan duten zailtasun handienetako bat. Euskal gizartearen berezko estereotipoekin eta aurreiritziekin lotzen dute, horien ondorio baitira jasaten dituzten diskriminazio sakonak.

Lan-merkatuan sartzea eta lanpostuari eustea ere ohiko diskriminazio-eremuak dira. SOS Arrazakeria eta CEAR¹⁶ erakundeetatik berretsi egin dute kartografian parte hartu duten protagonistetako bik azaldu duten laneko diskriminazioa. Migratzaile diren edo asilo-egoeran dauden emakumeen kasua bereziki larria da; haien lan-aukerak garbiketa-sektorerara eta eremu pribatuan pertsonak zaintzera mugatuta baitaude.

Palestinako parte-hartzaile guzti-guztiek bizi izan dute **islamofobiagatiko arrazakeria-egoeraren bat** ¹⁷ Euskadin. Hau da, beldurra edo aurreiritziak nabaritu dituzte «islamaren, musulmanen eta haiekin lotutako guztiaren aurrean». Bai hiri handietan, Bilbon edo Gasteizen, kasu, eta bai herri txikiagoetan ere.

*«Mohammed nire izenari buruz zerbait esan nahi dut. **Mohammed izenak berak batzuei beldurra eragiten die; mundu honetan Mohammed asko dago, onak eta txarrak. Euskal herritarren artean ere onak eta txarrak daude, ezta?** Nik normaltasunez jarduten dut jendearekin. Pertsona arrazista baten aurrean nik irribarre egingo dut, normal hitz egingo dut, ez naiz asko haserretuko. Hiru aldiz erantzun diet komentario arrazistei. Adibidez, pandemia-garaian, gobernuak esan zuenean kalean maskara ez zela derrigorrezkoa. Neska-lagunarekin nindoan Moyua plaza ingurutik, eta halako batean emakume bat etorri zitzaidan, urrutitik, maskara jartzeko esanaz, niri, inguruan jende guztia maskararik gabe zebilen arren. Inguruan inork ez zeramala maskararik erantzun nion, zergatik esaten zidan hori niri. Jartzeko eta jartzeko agintzen zidan berak, eta arrazista ote zen galdetu nion, eta berak baietz erantzun zidan. Oso haserre nengoen, aurpegira baietz erantzun zidalako, bera arrazista zela».*

16 Igualdad de trato y no discriminación: Discurso de odio y delito de odio hacia la población migrante y refugiada. Hemen eskura daiteke: https://www.cear.es/wp-content/uploads/2022/03/Igualdad-de-trato-y-no-discriminacion.-Discurso-y-delito-de-odio-hacia-poblacion-migrante-y-refugiada_CEAR-2022.pdf

4.3. GENERO-IKUSPEGITIK BEGIRATUTA

Argitalpen honetan eginahalak egin ditugu **palestinarrak jatorriko emakumeen ahotza** jasotzeko, baina ezinezkoa izan da emakumeen eta gizonen parte-hartzea parekatzea.

Bi arrazoi daude parte-hartze mugatu horren atzean. Lehenik eta behin, Euskadin bizi diren emakume palestinarrek oso gutxi dira. Datu hori bat dator Palestinako lurralde okupatutik irteten diren emakumeen kopuruarekin, gizonezkoena baino txikiagoa baita. Emakumeek **eskubideen urraketa bikoitza** pairatzen dutelako gerta liteke hori. Batetik, okupazioaren ondoriozko eskubide-urraketa jasaten dute, sexu-jazarpena eta emakumei bereziki eragiten dien bestelako indarkeria-motak barne; eta bestetik, Palestinako kulturen eta gizartean errotuta dagoen tradizio patriarkalaren ondoriozko eskubide-urraketa pairatzen dute. Bi faktore horien eraginez emakumeek ez dituzte gizonezkoek dituzten aukerak —horienak mugatuak badira ere—.

Bigarrenik, kontuan hartu behar da **genero-mandatuek** eta zenbait emakumeren sozializazio bereziak baldintzatu egiten dutela familiaren eta norberaren gertakariak eta istorioak kontatzeko aukera eta denbora. Horrek agian eragina izan du emakumeek argitalpen honetan parte hartzeko erakutsitako prestasunean; izan ere, hainbat emakumerekin jarri gara harremanetan argitalpen hau egiteko prozesuan parte har zezaten.

Elkarrizketetan aipatu izan da emakume arabiarrek —palestinarrak barne— objektu exotikotzat hartzen direla, gauzatat. Badirudi oraindik ere exotismo-irudi horrek baldintzatzen duela emakume arabiarrez dugun iritzia, eta gainera, biktima direla uste dugu, ez direla eragile, ez dutela erabakitze ahalmunik. Kontakizun kontraesankor horiek **genero-islamofobia** sustatzen duten diskurtsoen osagai dira. Beraz, beharrezkoa eta bidezkoa da emakume arabiar eta palestinarrek askotariko indarkeria prozesuetatik bizirik irten diren pertsonak eta aldaketa-eragileak direla onartzea.

Emakume palestinarrek pairatzen duten genero-islamofobia desagitera bideratutako ekintzak planteatzeko orduan, interesgarria da, lehenik eta behin, emakume mendeko eta otzanen irudi horri aurre egitea, eskubideen aldeko jardunean protagonista direla nabarmenduta.

Era berean, gizon arabiar matxista, kontrolatzaile eta homofoboaren estereotipoa ere atzean utzi beharrezkoa da. Elkarrizketatuek euren bizitza-esperientziarekin egin diote aurre iritzi horri. Protagonistetako batek Euskadin bizitzen jarraitzen du aita gisa duen erantzukizunagatik. Aitatasuna maitasunaren ikuspegitik ulertzen du, eta zaintza amarekin partekatu beharrezkoa dela deritzo.

4.4. ENTITATE SOZIALEN EGITEKOA: ZURRUMURRUEN AURKAKO ESTRATEGIAK

Elkarrizketatu ditugun entitate sozialak ZAS! Zurrumurruen Aurkako Euskadiko Sareko partaide dira. Hainbat proiektu daramatzate aurrera kulturartekotasunaren aldeko eta arrazakeriaren aurkako balioak eta printzipioak sustatzeko, eta agenda politikoan eta sozialean eragiteko. Zurrumurruen aurkako estrategiaren funtsa ustezko egiak gezurtatzea da, benetako datuen bidez agerian uztea okerrekoak direla, eta, hala, esamesen transmisio-katea etetea.

Elkarrizketatutako entitateak —Ikuspegi, Zehar Errefuxiatuekin, Arabako Gurutze Gorria, SoDePaz eta Gipuzkoako SOS Arrazakeria— bat datoz: ahalegin berezia egin beharra dago euskal gizarteak errefuxiatuei buruz duen iruditeria zabal dezan, eta pertsona batek asiloa eskatzeko dituen arazoak ezagutu ditzan. Ildo beretik, euskal gizartearen barruan iritziak eta jarrerak aldarazteko proiektuak landu nahi dituzte.

Ukrainako krisi humanitarioari politikoki eta gizartearen aldetik eman zaion tratamendua oso bestelakoa izan dela aipatu da, behin eta berriro, egindako elkarrizketetan. Administrazioen eta euskal gizartearen erantzun solidarioa nabarmena izan da, baina, aldi berean, agerian utzi du krisi humanitario guztiei ez zaiela arreta bera eskaintzen, eta ez dutela lehentasun bera agenda politikoan eta komunikabideetan.

Zehar Errefuxiatuekin erakundearen arabera: «**Gizarte gisa gai bagara Ukrainako krisi humanitarioari erantzuteko, zergatik ez diegu beste herrialde edo pertsona batzuei modu berean begiratzen? Hori da kritika edo hausnartu beharko genukeena.** Zergatik hartuko nuke etxean Ukrainako haur bat eta ez Magrebeko adingabe bat? (...) Administrazioek eta gizarteak erakutsi dute elkartasuna era batekoa dela pertsona batzuekiko, baina ez dela berdina mundu guztiarekiko. Zergatik eskubideak batzuentzat bai eta beste batzuentzat ez? Enpatia-gaitasuna dugu, baina pitzaduraz betea. Hortik abiatuta egin behar dugu lan».

5. BIBLIOGRAFIA

ACNUR (s/f 1) *Asilo: definición y características básicas*. Hemen eskura daiteke: <https://eacnur.org/blog/asilo-definicion-caracteristicas-basicas/>

ACNUR (s/f 2) *¿Qué relación tienen el derecho de asilo y la protección subsidiaria?* Hemen eskura daiteke: <https://eacnur.org/blog/que-relacion-tienen-el-derecho-de-asilo-y-la-proteccion-subsidiaria/>

ACNUR (2020) *Errefuxiatuen 2020ko memoria*. Hemen eskura daiteke: https://eacnur.org/files/reports/file/2020_memoriaanual_sp_web.pdf

ACSAR (s/f) *Identificación de estereotipos y falsos rumores*. Dani de Torresek zuzendu eta Gemma Pinyol Jiménezek koordinatutako «*Estrategia antirrumores para prevenir el racismo*» proiektuaren barruan egindako dokumentua. Hemen eskura daiteke: http://www.ayto-fuenlabrada.es/recursos/doc/bienestar_social/40898_9129122013121333.pdf

AECID (2022) *2022-2023 aldirako Estrategia Humanitaria, Palestina*. Hemen eskura daiteke: <https://www.aecid.es/Centro-Documentacion/Documentos/Acci%C3%B3n%20Humanitaria/Palestina%20V5.pdf>

BALADI (2021) *2021eko datuen txostena*. Hemen eskura daiteke: https://www.badil.org/cached_uploads/view/2022/05/19/map-pal-ref-worldwide-2022-en-1652945725.pdf

CEAR (2021) *2021eko txostena: Errefuxiatuak European eta Espainian*. Hemen eskura daiteke: <https://www.CEAR.es/wp-content/uploads/2021/06/Informe-Anual-CEAR-2021.pdf>

CEAR (2019) *2018ko txostena: Errefuxiatuak Espainian eta European. Madril: CEAR*. Hemen eskura daiteke: <https://www.pear-euskadi.org/wp-content/uploads/2018/06/Resumen-ejecutivo-en-euskera-1.pdf>

CEAR (2019) *Más que cifras*. Hemen eskura daiteke: <http://www.masquecifras.org/>

EUSKO JAURLARITZA (2017) *Esparru-dokumentua, Eusko Jaurlaritzarena, modu partekatuan bideratzeko errefuxiatuek Europako mugetan bizi duten krisi humanitarioari ematen zaion erantzun soziala, politikoa, erakundeartekoa eta sailartekoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Hemen eskura daiteke: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/personas_refugiadas/eu_def/adjuntos/Documento-marco-eus.pdf

Nazio Batuen Erakundea (1951) *Errefuxiatuen estatutuari buruzko Konbentzioa*. Geneva: Nazio Batuen Batzar Nagusia. Hemen eskura daiteke, gaztelaniaz: https://eacnur.org/files/convencion_de_ginebra_de_1951_sobre_el_estatu-to_de_los_refugiados.pdf

Nazio Batuen Erakundea (1954) *Aberrigabeen estatutuari buruzko Konbentzioa*. Geneva: Nazio Batuen Batzar Nagusia. Hemen eskura daiteke, gaztelaniaz: <https://www.acnur.org/5b43cea54.pdf>

Nazio Batuen Erakundea (1967) *Errefuxiatuen estatutuari buruzko protokoloa*. New York: Nazio Batuen Batzar Nagusia. Hemen eskura daiteke, gaztelaniaz: <https://www.acnur.org/5b076dcd4.pdf>.

Nazio Batuen Erakundea (2016) *Errefuxiatuen eta Migratzaileen inguruko New Yorkeko Adierazpena*. New York: Nazio Batuen Batzar Nagusia. Hemen eskura daiteke, gaztelaniaz: <https://www.acnur.org/prot/instr/5b4d0eee4/declaracion-de-nueva-york-para-los-refugiados-y-los-migrantes.html>

Nazio Batuen Erakundea (2022) *Giza eskubideen egoera Palestinako Lurralde Okupatuan, Jerusalem ekialdea barne, kokalekuen izaera juridikoa azpimarratuta. Errelatore bereziaren txostena, 1967. urteaz geroztik Palestinan okupatutako lurraldeetako giza eskubideen egoerari buruzkoa*. Hemen eskura daiteke: <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/G21/202/50/PDF/G2120250.pdf?OpenElement>

UNRWA (2021) *2021. urteko memoria*. UNRWA Espainia. Hemen eskura daiteke: <https://unrwa.es/wp-content/uploads/2022/07/Memoria-UNRWA-Espana-2021.pdf>

UNRWA (2020) *2020. urteko memoria*. UNRWA Espainia. Hemen eskura daiteke: https://unrwa.es/memoria-2020/wp-content/uploads/2021/08/2020_MEMORIA-2020-FINAL_WEB.pdf

UNRWA (2019) *UNRWA in figures 2018-2019*. Hemen eskura daiteke: https://www.unrwa.org/sites/default/files/content/resources/unrwa_in_figures_2018-2019_eng_july_final.pdf.

UNRWA (2016) *Palestinako Genealogia Feminista: emakume anitzen istorioak*. Hemen eskura daiteke: <https://recursoseducativos.ongdeuskadi.org/eu/recurso.php?id=166>

UNRWA (s/f) *Aproximación histórica al conflicto palestino-israelí*. Valentzia: UNRWA

6. ERANSKINAK

1. ERANSKINA. BIZITZA-ISTORIA EGITEKO GIDOI OROKORRA

1. Sarrera. Aurkezpena, elkarrizketa-prozesuari, audio-grabaketari, konfidentzialtasunari eta abarri buruzko azalpena.
2. Elkarrizketatuaren informazioa erregistratzea.

Oinarrizko informazioa		
Izen-abizenak:	Jatorrizko lurraldea:	Adina:
Bizileku duen udalerria:	Iritsiera-data: Egoitzarako bai- men-mota:	Prestakuntza:
Gaur egungo lanbidea:	Egoera zibila / egoera sentimentala:	Adingaberik ardurapean? Bestelako zaintza- ardurarik?
Elkarte-loturarik?	Harremanetarako:	Elkarrizketaren data:

3. Arlo pertsonala:

1. Nolakoa zen zure bizitza jatorrizko komunitatean? (egoera pertsonala, familiara, soziolaborala)
2. Zer arrazoik bultzatu zintuzten herrialdetik irtetera/ihes egitera?
3. Zenbat denbora eman zenuen bidaia prestatzen? Prestaketa-lanak egi-teko laguntzarik izan al zenuen? (familia-sarea, sare soziokomunitarioa, humanitarioa eta abar)
4. Zer faktorek eragin zuten Euskadi helmugatzat aukeratzea?
5. Nolakoak izan ziren iritsi ondorengo lehenengo hilabeteak? (laguntza ins-tituzionalak, auzoko taldeenak, feministenak, sareren bat)
 - Egoitzaren arloan
 - Lan-arloan
 - Osasun-arloan
 - Arlo emozionalean
6. Ba al duzu harremanik jatorrizko herrialdeko zure familia-sarearekin?
7. Zu joan zinenetik, zer aldaketa egin behar izan dituzte familiaren barne-antolaketa? (genero-rolak aldatzea, jatorrizko lurraldean izan duen era-gina)
8. Nola bizi duzu egoera hori? Zer emozio eragiten dizkizu?

4. Eskubideen arloa eta errefuxiatua edo migratzailea izateagatik pairatutako diskriminazioak. Askotariko diskriminazioaren balizko arrazoiak

9. Nolakoa da zure laneko bizitza gaur egun? Kontuan hartu al da jatorriz-ko herrialdeko ibilbide profesionala? Zer zailtasun dituzu edo izan dituzu lana aurkitzeko? Eta laguntzak? Pertsona aliatuak?
10. Zailtasunik izan al duzu osasun-, etxebizitza-, hezkuntza-zerbitzuak edo baliabide bereziak eskuratzeko, asiloa edo errefuxiatu-izaera onartuta ba-duzu? Zer baliabide izan dituzu lagungarri? (pertsonalak, komunitarioak edo bestelakoak izan daitezke)
11. Bertako herritarrekin izandako bategite- eta desadostasun-kasuen adibi-deren bat azalduko diguzu? (emakumeak, gizonak, adin askotako pertso-nak...)

12. Kolektibo sozialen batean parte hartzen duzu? Aldaketarik ekarri al dizu horrek, pertsonalki?
13. Migratzeak zer esperientzia erakutsi dizu?
14. Lekualdatu aurretik zenituen aurreikuspenak betetzen ari dira?
15. Azpimarratu edo erantsi nahi duzun zerbaite...

Eskerrak ematea, hurrengo pausoak eta agurra

2. ERANSKINA. ENTITATEAK ELKARRIZKETATZEKO GIDOIA

Oinarrizko informazioa		
Pertsonaren izena,	Elakrriketa egingo duen entitatea:	Elkarriketaren data:
Harremanetarako:		

1. Zein dira zuen lan-ildo nagusiak?
2. Espainiako estatuak zer nolako politika du gaur egun asiloari dagokionez?
3. Zertan datza nazioarteko babes eta asilorako programa?
4. Eskatzaileek zer oztopo nagusi dituzte eskaera tramitatzeke eta beren egoera onartua izateko?
5. Ba al dago desberdintasunik edo zailtasun berezirik genero-arrazoia direla eta?
6. Orokorrean Ekialde Hurbilekoak diren herritarrekin edo Palestinakoekin bereziki egiten duzue lan zuzenean?

7. Herritarrekin landuko diren ekintzetan, jatorri palestinarreko pertsonen eta errefuxiatuen egoera berezia nabarmentzen al da?
8. Ekintza horietan, emakumeen eta gizonen egoera desberdina nabarmentzen al da?
9. Ekintzetan eta kanpainetan hizkuntza ez-sexista erabiltzen da komunikatzeko?
10. Herritarrek Ekialde Hurbileko errefuxiatuei buruz eta bereziki Palestinakoei buruz duten pertzepzioan, zer aldaketa ikusten dira? Iritzi horrek zer bilakaera izan du? Zein da egungo joera?
11. Bukatzen joateko, zerbait gehiago esan nahi duzu edo azpimarratu?

Eskerrak ematea, hurrengo pausoak eta agurra



erkidego batzordea
unrwa
euskadi

**Palestinako
errefuxiatuekin**